LEKEITIOKO UDALAREN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, OBRAK PREMIAZKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO, EUROPAR BATASUNAK -NEXT GENERATION EU- FINANTZATUTAKO BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARRUAN.

Lizitazio hau Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan kokatzen da, zeina Ministro Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Erabakiaren bidez onartu baitzen behin betiko, Europako Batzordeak 2021eko ekainaren 16an onartutako proposamena oinarri hartuta, eta agindu honetan bertan araututako oinarrien arabera garatuko da, norgehiagokaren bidez.

Honako hauei egokitu da: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen azken aldaketetara; Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 31ko 36/2020 Errege Lege Dekretura (*2020ko abenduaren 31ko BOE, 341. zk.*); Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko presako neurrien martxoaren 3ko 3/2021 Lege Dekretua (*2021eko martxoaren 8ko BOE, 45. zk.*), eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 eta HFP/1031/2021 Aginduak. Horien bidez, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) kudeaketa-sistema eratzen da, bai eta Next Generation EU Europako Funtsen kargura finantzatutako jarduketak gauzatzean aplikatu beharreko gainerako araudia ere.

Espedientea: B057-2024-00001/ EU

Izenburua: **Garraitz uhartea parke arkeologiko gisa balioztatzea**, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan

CPV kodea: 45212350
45454100

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

I - ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEI BURUZKO AGIRIAREN AZALA.

II - ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA (AKBA).

III - ERANSKINAK.

I. eranskina: Proposamen ekonomikoaren eredua
II. eranskina: DEUC
III. eranskina: Egikaritze baldintza bereziei buruzko erantzukizunpeko adierazpena
IV. eranskina: Talde bereko enpresen zerrenda
V. eranskina: Euskal Autonomia Erkidegoko eta, hala badagokio, Estatuko lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialeko datuen baliozkotasunari buruzko zinpeko adierazpenaren eredua.
VI. eranskina: Baliabideak atxikitzeko konpromisoa
VII. eranskina: Azpikontratatzea aurreikusten diren kontratu-zatiak eta azpikontratisten zerrenda
VIII. eranskina: Kontratua betetzeko erabili edo atxikitzea agindu dituen bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duten agiriak.
IX. eranskina: Kontratuaren xede den jardueran aritzen diren langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, eta, kontratua adjudikatu ondoren, langileei egiaz aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia emateko konpromisoa.
X. eranskina: Datuen tratamendu eta lagapenerako erantzukizunpeko adierazpena, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak betetzeari dagokionez
XI. eranskina: Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak betetzeari dagokion konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpena
XII. eranskina: Interes-gatazkarik ez dagoelako adierazpena
XIII. eranskina: Ingurumenari kalterik ez eragitearen erantzukizunpeko adierazpena (DNSH)
XIV. eranskina: NextGeneration funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan xedatutako moduan.
XV. eranskina: Iruzurraren aurkako politikari atxikitzeari eta politika hori ezagutzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
XVI. eranskina: Berariazko baimena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko agintaritzei.
XVII. eranskina: Finantzaketa bikoitzik ez duela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

I - ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEI BURUZKO AGIRIAREN AZALA

KARATULA: 1. PUNTUA

EZAUGARRIEN TAULA

Kontratu mota: Obra
Prozedura: Irekia **SPKLren artikulua: 156**
Izapidetzea: Premiazko (Aurretiazko izapidetza), Kontratazio-prozedura hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen hirugarren xedapen gehigarrian babesten da. Ondorioz, AURRETIAZKO IZAPIDETZEAREN izaerarekin sortzen da.
Erregulazio harmonizatuaren mende egotea: Ez
Kontratazio organoa: Alkatetza

KONTRATUAREN XEDEA ETA EZAUGARRIAK

Espedientea: B057-2024-00001/ EU
Kontratuaren xedea: Garraitz uhartea parke arkeologiko gisa balioztatzea, **Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan**
CPV kodea: 45212350 45454100

Kontratu erreserbatua: EZ

Kontratu honen bidez ase beharreko premiak eta kontratuaren egokitasuna: Kontratuaren xedea da Garraitz uharteko naturgunearen kudeaketa hobetzea, baliabide natural hori kontserbatze aldera. Uhartea Lekeitioko eta, oro har, euskal kostaldeko paisaia natural, kultural eta paisajistikoaren funtsezko ikonoa da. Jarduketa horren bidez, uhartearen erakargarritasun turistikoa hobetuko da, ondare arkeologikoa babestuko da eta modu jasangarrian bisitatzea sustatuko da. Obra-kontratu hau Europar Batasunak-NextGenerationEUk finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan kokatzen da.

Kontratu-dokumentu espezifikoak: agirian adierazitakoak.
Kontratuaren isilpeko informazioa: ez dagokio **Datu pertsonalak**: EZ.

Dokumentazioa aurkeztea: Gutun-azal bakoitzeko dokumentazio guztia formatu digitalean aurkeztuko da.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Euskarri digitala banakakoa izango da gutun-azal bakoitzerako. Informazio guztia biltzen duen euskarri digital bakarra aurkezteak eskaintza baztertzea ekarriko du, proposamenen sekretua urratzeagatik.

Kontratatzailearen profila: https://www.lekeitio.com/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orriak/Listado.aspx **Helbide elektronikoa:** Lekeitioko Udalaren kontratazio-espediente guztiak elektronikoki izapidetuko dira. Horrek esan nahi du espediente horietatik eratorritako jakinarazpenak ere elektronikoki emango direla eta Lekeitioko Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri egongo direla. Horiek eskuratzeko, lizitatzaileek dagokien ziurtagiri elektronikoa izan beharko dute, izan banakakoa zein erakundeko ordezkariarena. Era berean, helbide elektroniko bat eman beharko dute.

Egikaritze materialeko aurrekontua: 111.942,20 €

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: (BEZa barne)	
Lizitazio-oinarria:	**133.211,22 €**
BEZa:	**27.974,36 €**
GUZTIRA:	**161.185,58 €**

Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZa kanpo)	
Lizitazio-oinarria:	**133.211,22 €**
Aldaketen zenbatekoa:	**0,00 €**
GUZTIRA:	**133.211,22 €**

SORTAK: Ez dagokio, obra-lanen plangintza eta garrantzia kontuan hartuta.

Prezioen berrikusketa: EZ	**Formula / Adierazle ofizialak:** EZ
Prezioen aldaketa epe- edo errendimendu-helburuen betetze-mailaren arabera / Ez-betetzeengatiko zigorrak: EZ (Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 102.6 artikulua)	

Urterokoak (BEZa barne):

AURREKONTU-EKITALDIA	ZENBATEKOA
2024	161.185,58 euro
GUZTIRA	161.185,58 euro

Aurrekontu-partida: 900.601.171 **Aurretiazko izapidetzea**: BAI. **Europako funtsek finantzatua:** Lizitazio hau Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan kokatzen da, zeina Ministro Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Erabakiaren bidez onartu baitzen behin betiko, Europako

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Batzordeak 2021eko ekainaren 16an onartutako proposamena oinarri hartuta, eta agindu honetan bertan araututako oinarrien arabera garatuko da, norgehiagokaren bidez.

HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOAREN ESTRATEGIA (2021eko uztaila - 2022ko martxoan berrikusitako bertsioa) https://turismo.gob.es/es-es/estrategia/V2022_Estrategia_Sostenibilidad_Turistica_destino.pdf

Kontratazio-prozedura hori Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 23ko Ebazpenean jasotako finantzaketaren xede diren jarduketen esparruan egiten da. Ebazpen horren bidez, Turismoko Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratzen da, zeinaren bidez finkatu baitziren tokiko erakundeen inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutako kredituaren banaketa-irizpideak, eta horien ondorioz autonomia-erkidego bakoitzari zegozkion funtsak Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 1. Inbertsioaren 14. Osagaiaren esparruan.

Turismoko Konferentzia Sektorialaren Erabakian, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako kreditua —24,13 milioi euro— jasotzen da, erakunde onuradunek inbertsio-jarduketak finantzatzeko.

Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana (PSTD) aplikatzeko, Lekeitioko Udalari 1.000.000 euroko laguntza dagokio.

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Lekeitioko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenean, Lekeitioko Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren lurralde-planari dagokion Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana (PSTD) gauzatzeko, Lekeitioko Udalak egin beharreko jarduerak jasotzen dira, Ardatzetan eta Jarduketetan bilduta.

Kontratazio-prozedura hori Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko 1. ardatz programatikoaren (Trantsizio berde eta jasangarriaren arloko jarduketak), 2. azpineurriaren (Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planak) eta 1. inbertsioaren (Eredu turistikoaren eraldaketa jasangarritasunerantz) 14. osagaiaren (Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren turismo-sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasun Plana) barruan biltzen da.

Espediente-zenbakia: Lekeitioko PSTD: Lea Ibilbidea

Onuraduna: Lekeitioko Udala

Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planerako emandako laguntza, guztira: 1.000.000,00 euro

1. ardatz programatikoa, “Trantsizio berde eta jasangarriaren arloko jarduketak”: 140.000,00 euro

Garraitz uhartea parke arkeologiko gisa balioztatzea jarduketa: 140.000,00 euro

Aurrekontua: 161.185,58 euro.

Europar Batasunak-Next GenerationEU-k finantzatuta: 140.000,00 euro

Lekeitioko Udalaren ekarpena: 21.185,58 euro

Bestelako finantzaketa:	EZ	Kodea:	Mota:	Baterako finantzaketa: %

Betearazteko epeak eta epe partzialak: LAU (4) HILABETE

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JOMUGAK ETA HELBURUAK:

Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana Kontseiluaren Betearazpen-erabakiaren 217. helburuan kokatzen da, Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planetarako aurrekontua esleitzeari buruzkoan, baita 220. jomugan ere, Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak egikaritzeari dagokionez, eta 221. jomugan, Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak amaitzeari dagokionez.

Etiketatze berdea eta etiketatze digitala.

Jarduera-esparrua: 050
Klimaren koefizientea: % 40
Ingurumenaren koefizientea: % 100
Koefiziente digitala: E/A

Esleitzeko prozedura: Irekia	
Esleipena egiteko gehieneko epea: Bi hilabete, proposamenak irekitzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita.	
Espedientea izapidetzea: Premiazkoa (Aurretiazko izapidetzea)	
Aldaketak egin ahal izatea: EZ	

Adjudikazio-irizpideen aniztasuna: balio-iritzien mendeko irizpideak eta automatikoki kontuan hartzeko irizpideak.

Azpikontratatzeko aukera: BAI
Baietz izanez gero, lizitatzaileek kontratuaren zein zati azpikontratatu nahi duten adierazi beharko dute, zenbatekoa eta kontratua egiteko ardura emango zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazita, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta.
Enpresa esleipendunak azpikontratak aldatzen baditu, idatziz jakinaraziko die proposamena Obren Zuzendaritzari eta Udal Zerbitzu Teknikoei.
Enpresa esleipendunak Obren Zuzendaritzaren eta Udal Zerbitzu Teknikoen berariazko baimena izan beharko du hasieran aurkeztutako azpikontratisten zerrendari dagokionez, bai eta lanak egin bitartean azpikontratisten zerrendan edozein aldaketa egiteari dagokionez ere. Horrela, Obren Zuzendaritzak eta Udal Zerbitzu Teknikoek lanak egiteko gaitasun tekniko edo ekonomiko nahikorik ez duten azpikontratistak baztertu ahal izango dituzte.
PRTRrekin finantzatutako kontratuen kasuan, azpikontratista orori jakinarazi behar zaizkio kontratista nagusiak kontratua gauzatzeko hartu dituen betebeharrak, zuzenean eragiten diotenak eta/edo bete behar dituenak, eta, bereziki, bete behar diren jomugak eta helburuak, horiek betetzeko epeak, gauzatzeko baldintza bereziak, Lekeitioko Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren mende jartzea, lan-arloko eta gizarte-arloko araudia, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitea, eta etiketa berde eta digitalei dagokienez, horiek betetzea bermatu behar baita.
Azpikontratistak aitorpen hauek aurkeztu beharko ditu:
• PRTRren jarduerak gauzatzeari buruzko datuen lagapenari eta tratamenduari buruzko aitorpena, X. ERANSKINAREN bidez.
• Interes-gatazkarik ezaren erantzukizunpeko adierazpena, XII. ERANSKINAREN bidez.
• PRTRren jarduerak gauzatzeari buruzko konpromiso-adierazpena, XI. ERANSKINAREN bidez.
• Ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko erantzukizunpeko adierazpena, XIII. ERANSKINAREN bidez.
• Iruzurraren aurkako politikarekin bat egiteko eta politika horren berri izateko erantzukizunpeko adierazpena, XV. ERANSKINA.
• Benetako titulartasunaren erantzukizunpeko adierazpena, XIV. eranskinaren bidez.

Azpikontratatu ezin diren prestazioak: EZ

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Behin betiko bermea: Adjudikazio-zenbatekoaren % 5, BEZa kanpo. **Behin betiko bermea, prezioan atxikituz:** EZ	
Berme osagarria:	EZ

Obren amaierako ziurtagiria onartzeko epea: Hiru (3) hilabete
Obra partzialki hartzeko epea: Ez dagokio
Obra hartzeko epea: Hilabete bat (1)
Obraren neurketa orokorra egiteko epea: Hilabete bat (1)

Obraren berme-epea: Urte bat (1) edo esleipendunak eskaini duen geroko urtea.

FAKTURA ELEKTRONIKOAN SARTU BEHARREKO DATUAK. Enpresa esleipendunak faktura elektronikoa aurkeztu beharko du, AKBAn adierazitako moduan.
Kontabilitate-zentroa (Kontabilitate-bulegoa): L01480577
Kontratazio-organoa (Organo kudeatzailea): L01480577
Xede-organoa (Izapidetze Unitatea): L01480577

Fakturak aurkezteko erregistroa: www.lekeitio.eus

Behin betiko bermea, prezioan atxikituz: EZ

Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak:

- DATU SOZIOLABORALAK: Bai, AKBAren 11. puntuan adierazitakoak.

- INGURUMENARI BURUZKOAK: Bai, AKBAren 11. puntuan adierazitakoak.

Berariazko baldintza bereziak – BEEPetik ERATORRITAKO BETEBEHARRAK

1/2022 instrukzioaren arabera, BEEP araudiaren arabera finantzatutako kontratuek HFP/1030/2021 Aginduaren 2. artikuluan jasotako printzipioak errespetatu behar dituzte, eta kontratuaren agiri zuzentzaileetan sartu behar dira.

Jarraian adierazten dira:

- Jomugak eta helburuak: Arestian aipatu dira.

- Etiketatze berdea eta digitala: Arestian aipatu dira.

- Arriskuaren analisia, ingurumenean egin daitezkeen kalte esanguratsuei (Do No Significant Harm, DNSH) dagokienez, eta emaitzen jarraipena eta egiaztapena, hasierako ebaluazioari dagokionez.

Gauzatzen diren jarduketek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa errespetatuko dute (do no significant harm - DNSH printzipioa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan (2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) eta hura garatzeko araudian xedatutakoa betez, bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio horren aplikazioari buruzkoa, bai eta Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Espainiaren

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eta haren Eranskin dokumentuan eskatutakoa ere.

Egiten diren jarduera guztietan, ingurumen-araudi nazionala eta EBkoa errespetatuko dira, eta, nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarreko legeriaren arabera aplikatzekoak direnean, bai eta ingurumen-legeriaren arabera aplikagarriak izan daitezkeen beste eragin-ebaluazio batzuk ere.

BEEPan jasotako egikaritze-neurriek ezin diete kalte esanguratsurik egin sei ingurumen-helburuei:

1. Klima-aldaketa arintzea;
2. Klima-aldaketara moldatzea;
3. Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta;
4. ekonomia zirkularrerantz aurrera egitea;
5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola;
6. biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzea.

Kontratistak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek Europar Batasuneko eta Estatuko ingurumen-arloko araudia betetzen dela bermatuko dute, (2021/C58/01) Gida Teknikoko «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioaren (*do no significant harm*-DNSH printzipioa) arabera.

Era berean, kontratu honen xede den jardueraren bat edo guztia azpikontratatuz gero, erakunde esleipendunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu azpikontratistek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren ildotik.

«Kalte esanguratsurik ez eragitea» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoa (EO C 58, 2021.02.18koa, 1. or.) erabat betetzen dela bermatzeko, honako jarduera hauek baztertzen dira: i) erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien geroko erabilera barne; ii) EBko isurketa-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen emisioak erreferentziazko parametroen azpitik egongo ez direla aurreikusten dutenekin lotuta; iii) hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin zerikusia duten jarduerak; iv) hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalteak eragin diezazkiokeen jarduerak, DNSH ebaluazioa negatiboa den jarduerez gain.

Kontratistak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, DNSH printzipiora egokitzearen aldeko ebaluazioaren bidez, edo, hala badagokio, printzipio hori betetzen dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, XIII. ERANSKINAren arabera. Nolanahi ere, erakunde esleipenduna erakunde kontratatzaileak «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dela ziurtatzeko hartzen dituen egiaztapen-mekanismoen eta neurri zuzentzaileen mende egongo da.

Printzipio hori errespetatzeko betebehar orokorraz gain, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek neurriak izan ditzakeen giza eskubideen baldintza espezifikoak bete beharko dituzte. BEEPeko 14. osagaiaren 1. inbertsioaren 8. atalean ezartzen denaren arabera, birgaitzea, ekipamenduak eta azpiegiturak eskatzen dituzten jarduketetan, DNSHko honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

1. **Klima-aldaketa arintzea.**

Eraikinak birgaitzean, kontuan hartuko dira Eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako gidalerroak, ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izan daitezen, energia primario berriztaezinaren kontsumoa nabarmen murrizteko.

2. **Klima-aldaketara moldatzea.**

Birgaitze-neurriei esker, eraikinak klima-aldaketara moldatu ahalko dira; horretarako, lehendik dauden eraikinek ahalbidetzen dituzten aukeren arabera egokitzapen-irtenbideak hartuko dira eta eraikinak eraikin babestuak badira, babestu egingo dira, hala nola landare-estalkiak, eguzki-oihalak eta itzal-zonak erabiliz.

3. **Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.**

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ez da uste neurria kaltegarria izango denik baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarrirako eta babeserako. Neurriaren helburua da turismo-helmugak eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko estrategietara hobeto egokitzea, baliabide hidrikoen kontsumoa murriztea eta baliabide naturalak babestea, bereziki itsasokoak. Ur-aparatuak instalatzen direnean, Europar Batasuneko produktu-etiketaren bat izango dute. Obraren eragina saihesteko, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa saihestearekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatu eta landuko dira, uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan baten arabera. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea ezarri da, IEE Zuzentarauaren arabera, eta proiektu bakoitza diseinatzean baliabide hidrikoak modu jasangarrian erabiltzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta islatu dira.

4. **Ekonomia zirkularreranzko trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.**

(I) Inbertsio honetan ezarritako jarduketetan sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuan), gutxienez (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Hondakinen Europako Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz.

(II) Operadoreek eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan sortutako hondakinak mugatuko dituzte, EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera eta erabil daitezkeen teknikarik onenak kontuan hartuta. Eraispen selektiboa erabiliko dute substantzia arriskutsuak segurtasunez kendu eta manipulatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko; horretarako, materialak gaika kenduko dituzte, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sailkatzeko dauden sistemak erabiliz.

(III) Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna lagunduko dute ISO 20887 arauari dagokionez, eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko eta nola dauden diseinatuta ebaluatzeko, baliabideen erabileran efizienteagoak eta moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.

5. **Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.**

Ez da espero neurriak atmosferara, uretara edo lurzorura egindako emisio kutsatzaileak nabarmen handitzea, neurrien helburua baita, besteak beste, turismoak lurraldean duen presioa murriztea, jasangarritasunean oinarrituta. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo da, IEEren Zuzentarauaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudi nazionalaren arabera, eta, proiektu bakoitza diseinatzean, lurzoruaren eta uraren kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta jasoko dira. Energia fosilak erabiltzen dituzten berokuntza- eta hozte-sistemen ordez kutsatzen ez duten teknologiak ezartzera bideratutako jarduketen izaera orokorrak aireko emisioak nabarmen murriztea eta, ondorioz, osasun publikoa hobetzea ahalbidetuko du. Eraikinen birgaitzea sustatzeari dagokionez xedatutako jarduketen izaera orokorrak, energia-eraginkortasunaren kontzeptua barne, argi eta garbi aurreikusten du kutsatzaile atmosferikoen emisioak murriztuko direla, batez ere energia-kontsumoa murriztearen ondorioz.

Eraikuntzan erabiliko diren eraikuntza-osagaiek eta -materialek ez dute amiantoa edo substantzia oso kezkagarririk izango, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean agertzen den baimena behar duten substantzien zerrendaren bidez identifikatuta. Eraikuntzan erabiltzen diren eta erabiltzaileekin kontaktuan egon daitezkeen eraikuntzako osagai eta materialek 0,06 mg formaldehido baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m^3 bakoitzeko, eta 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko lurrunkor kantzerigenoen 0,001 mg baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m^3 bakoitzeko, CEN/TS 16516 eta ISO 16000-3 edo bestelako froga-metodo estandarizatuen bidez eta konparagarriak diren zehaztapen-metodoekin bat etorriz frogatu ondoren. Gainera, obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta neurri horri lotutako jarduketak egingo dira, betiere lurzoruak eta ura kutsatzeko arriskua dela-eta indarrean dagoen araudia betez.

6. **Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.**

Neurriak ez du ondorio kaltegarririk izango biodibertsitatean eta ekosistemetan, natura-, itsaso- eta lur-inguruneak babestuko dituelako, Espainiako turismo-politikaren elementu bereizgarri gisa. Birgaitze-jarduketak biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOren Munduko Ondareko guneak eta biodibertsitaterako funtsezkoak diren eremuak, bai eta beste eremu babestu batzuk ere) edo hurbileko eremuetan egiten direnean, Habitatei buruzko Zuzentarauaren

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

6. (3) eta 12. artikuluak eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 5. artikulua bete beharko dira. Gainera, nahitaezkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) egingo da, IEE Zuzentarauaren arabera.

Jarduketak diseinatzean eta garatzean DNSH printzipiora egokitzeko, honako gida orientagarri hau erabili ahal izango da:
https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicion-verde/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf

- **Kontratistak eta azpikontratistek funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa eman beharko dute**, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan xedatutako moduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuan ezarritako baldintzetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko, zeina kontratistaren eta azpikontratisten erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko baita (XIV. eranskina).

-**Komunikazioa**.
BEEPeko programa guztiak gauzatzeko, nahitaezkoa da "BEEPren markaren eskuliburua" erabiltzea. Horrek esan nahi du sortzen diren agiri, aurkezpen eta gainerako guztiek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren identifikazio-elementuak jaso behar dituztela, eskuliburu horrek ezartzen dituen baldintza zehatzetan, bereziki "R" aren logotipoari dagokionez, Espainiako Gobernuaren identifikazio-armarriarekin batera.
"BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN KUDEATZAILE ETA ONURADUNENTZAKO KOMUNIKAZIO ESKULIBURUA" erreferentzia izan daiteke horretarako: 23112023 MANUAL DE COMUNICACIÓN PARA LOS GESTORES DEL PLAN.pdf (hacienda.gob.es)

Komunikazioaren, publizitatearen eta zabalkundearen arloko honako betebehar hauek bete beharko dira:
a) Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzkoak, aplikatu beharreko Europako eta Estatuko araudiarekin bat etorriz, eta, bereziki, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan jasotako betebeharrekin bat etorriz. Inbertsioak garatzen dituzten jarduketen informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, paperezko argitalpenak eta argitalpen elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, iragarkiak eta prentsako iragarkiak, ziurtagiriak, etab.), honako logo hauek sartu beharko dira:

1. Europar Batasunaren ikurra;
2. Europar Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunak finantzatua - Next Generation EU» testua ere jasoko da;
3. 821/2014 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak kontuan hartuko dira. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu, programaren ekarpenak transferitzeko eta kudeatzeko modalitate zehatzei, finantza-tresnei buruzko informazioaren aurkezpenari, eragiketen informazio- eta komunikazio-neurrien ezaugarri teknikoei eta datuak erregistratu eta biltegiratzeko sistemari dagokienez. Honako webgune hau ere kontsulta daiteke: http://publications.europa.eu/code/es/es-5000100.htm, eta ikurraren adibideak deskargatu hemen: https://europa.eu/european-union/about-eu/symbols/flag_es#download.

b) Onartutako inbertsioei buruz edozein hedabidetan egiten den aipamen orotan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzatu dituela adierazi beharko da (logotipo ofizialak hemen eskura daitezke: https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/articles/5221643005073-Logotipos-de-los-diferentes-departamentos-ministeriales), bai eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ere.
c) Onartutako inbertsioei buruz edozein hedabidetan egiten den aipamen orok Berreskurapen Planaren logoa erabili beharko du hedabide gisa. Esteka honetan dago eskuragarri: http://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual.
d) Eremu honetan garatzen diren eta kontratistek/azpikontratistek aurkeztutako deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztietan (azterlanak, txostenak, inkestak...) honako erreferentzia hau jaso beharko da hala goiburuan, nola garapen-gorputzean: «Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatuta – NextGenerationEU».

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

2.- Informazio-kartel eta plaka guztiak ondo ikusteko moduan eta jendeak ikusteko moduan jarri beharko dira, eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da.

-**Dokumentazioa zaintzeko betebeharra**
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan ezarritako betebeharra betez, kontratistek eta azpikontratistek erregistro bat edukiko dute, eta finantzaketa-dokumentuak, datu estatistikoak eta finantzaketarekin lotutako gainerako dokumentuak gordeko dituzte, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, bost urtez, saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketa egin ezean, eragiketa egiten denetik zenbatzen hasita. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada.
Auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei buruzko erreklamazioen izapidetzeari edo OLAFen ikerketei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira harik eta auditoretza, errekurtso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek jasotzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra.
Erregistroak eta dokumentuak jatorrizkoak izango dira, edo jatorrizkoen kopia konpultsatuak, edo oro har onartutako datu-euskarrietan gordeko dira; besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik dauden dokumentuak. Dokumentuak bertsio elektronikokoak badira, ez da jatorrizko dokumenturik beharko baldin eta dokumentu horiek aplikatu beharreko lege-baldintzak betetzen badituzte, jatorrizko dokumentuen baliokidetzat eta auditoretzaren ondorioetarako fidagarritzat jo ahal izateko.

-Europako Batzordearen, Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren **kontrolak beteko ditu**, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea izango dute.

-Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.
Lizitatzaileek proposamenak aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe eta erreserbarik gabe onartzen dutela Lekeitioko Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana. Plan hori kontratuaren araubide juridikoaren atalean jasota dago, eta haren xedapenak oso-osorik bete behar dira, erabat errespetatuz autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudia iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokionez, bai eta Europar Batasuneko finantza-interesak babesteari buruz erakundeek egiten dituzten erabakien arabera ere. Nolanahi ere, lizitatzaileek lehia askearen, gardentasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatu beharko dituzte lizitazio-fase osoan, bai eta kontratua gauzatu eta betetzearen printzipioa ere; horregatik, kontratazio-organoari berehala jakinarazi beharko dizkiote igartzen dituzten eta kontratazio-espedienteari eragin diezaioketen gatazka-egoera potentzial edo erreal guztiak.
-Kontratazio-espediente hori gauzatzeko, Europako Batzordeak, Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak bete beharko dira. Horretarako, organo horiek kontratuari buruz eskatutako informazio guztia eskuratu ahal izango dute.

-**Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea** behartuta dauden pertsona guztiek (XII. eranskina)

-**Estatuko laguntzekiko bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.** Kontratistak eta azpikontratistak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, finantzaketa bikoitza saihesteko neurriak betetzeari buruzkoa, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluaren XVII. eranskinaren arabera.

- Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratu zuen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluaren bigarren atalean jasotako **kontratisten eta azpikontratisten identifikazioa** (2021eko irailaren 30eko BOE, 234. zk.), zehazki:
a) Enpresa kontratistaren edo azpikontratisten IFZ.
b) Izen-abizenak edo sozietatearen izena.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

c) Enpresa kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten helbide fiskala.
d) Kontratistek egiaztatzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan edo Zergen Foru Administrazioaren errolda baliokidean izena eman dutela. Erroldan, lizitazio-prozeduran parte hartzeko egunean benetan garatzen den jarduera zein den adierazi behar da.
e) Tartean dauden Administrazio Publikoen artean datuak lagatzea onartzeko adierazpena, aplikatu behar den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat (X. eranskina).
f) Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak betetzeari dagokion konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpena (XI. eranskina).

Zigorrak: AKBAren 15. puntuan adierazitakoak.

Zigorrak kontratua betetzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik: BAI

Agiri honen 15. puntuan ezarritakoak.

Kontratua suntsiarazteko kausa espezifikoak:

2017ko SPKLn oro har xedatutakoak eta BEEPan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondoriozkoak.

Prezioa ordaintzeko araubidea: ikusi AKBAren 5. puntua.

Kontratua aldatzeko aukera: Ez

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KARATULA: 2. PUNTUA

KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOARI ETA KAUDIMEN TEKNIKOARI BURUZKO BALDINTZAK.

DOKUMENTAZIO OROKORRA. AURRETIKO BALDINTZAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA ETA KAUDIMEN TEKNIKOA.

KAUDIMEN EKONOMIKO ETA TEKNIKOA **EGIAZTATZEKO**, jarraian aipatzen den eta kontratuari dagokion sailkapeneko talde edo azpitaldean enpresa sailkatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. EAEko Administrazio Sailkapeneko Aholku Batzordeak edo Kontratisten Erregistroak eman behar du ziurtagiri hori, eta, horrekin batera, V. eranskinaren araberako adierazpena aurkeztu beharko da, ziurtagiriaren indarraldiari eta ziurtagiria lortzeko oinarritzat hartu ziren inguruabarrei buruzkoa.

Kontratistaren kaudimena eta sailkapena (AKBAren 23.B klausula)
Aukerako sailkapena
K taldea 7. azpitaldea 1. kategoria.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KARATULA: 3. PUNTUA

LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

A GUTUN AZALA: Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena.

1.- Gaitutako helbide elektronikoa.
2.- Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena (DEUC).

B GUTUN-AZALA: Balio-judizioaren bidez baloratzeko irizpideak. BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATUTAKO ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA
35 puntu gehienez.

1.- Txosten teknikoa: 20 puntu

Lizitatzaileak obraren gauzatzea aztertzen duen memoria bat egin beharko du. Obraren zailtasun nagusiak eta lanen kokapenak dakartzan baldintzak adierazi, deskribatu eta aztertuko dira. Lizitatzaileak___proiektuaren ezagutzatik, azterketatik eta egiaztapenetik eratorritako dokumentazioa sartu ahal izango du eskaintzan, neurketen eta aurrekontuaren azterketa eta egiaztapenak barne. Lizitazioaren xede den kontratuaren deskribapena zuzena, zehatza, arrazoitua eta egokia izatea baloratuko da.

1.1. Proiektuaren analisia (6 puntu)
Eraikuntza-prozesu esanguratsuenen deskribapena (3 puntu); horien ordena azaldu behar da eta proposamena arrazoitu (3 puntu)
1.2. Obraren zailtasun nagusiak hautematea (10 puntu)
Obraren puntu kritikoak definitzea (5 puntu); modu arrazoituan azaldu beharko dira eta zailtasunak nola konponduko diren zehaztu beharko da (5 puntu)
1.3. Ingurumen-alderdiak (4 puntu)
Obrak gauzatzearen ondoriozko inpaktuak minimizatzeko proposatutako neurriak zehaztea: hondakinen kudeaketa egokia, ekosistemen eta landarediaren gaineko eragina murriztea, ingurunean ahalik eta eragin txikiena bermatzeko mugikortasun-neurriak, eta abar.

2.- Lanen programa: 15 puntu

Asmoa da proposatutako antolamendu espezifikoa ezagutzea, aurreko atalean aztertutako alderdiekin bat etorriz, kontuan hartuta obraren berezitasuna eta errendimenduetan eta epeetan duen eragina. Jarduera bakoitzeko, eraikuntza-metodoa eta gauzatzeko modua adieraziko dira, proposatutako ekipoak zehaztuko dira, aurreikusitako errendimenduak justifikatuko dira eta eraginak eta interferentziak murrizteko bitartekoak zehaztuko dira. Egindako antolamenduaren zuzentasuna eta arrazoiketa baloratuko dira, bai eta jarduera bakoitzaren xehetasun- eta deskribapen-maila ere.

2.1. Obraren kokapenak lan-programan duen eragina aztertzea (7 puntu)
2.2. Lanen antolamendu espezifikoa eta aurreikusitako metodologia (5 puntu)
Lan-eremuetan egin beharreko lanen deskribapena, erabiliko diren bitartekoak, ekipo kopurua eta horien antolamendua adierazita.
2.3. Aurreikusitako epea betetzen dela bermatzeko beste antolamendu batzuk aztertzea (3 puntu)
Obraren jarraipena errazteko mugarriak ezartzea eta obran egon daitezkeen atzerapenak berreskuratzeko proposamen praktikoak egitea baloratuko da.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

FORMULEN BITARTEZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHAR DEN PUNTUAZIOAREN GUTXIENEKO ATALASEA

9/2017 Legearen 146.3. artikuluan xedatutakoarekin bat, azken balorazioan onartuak izateko, formula bidez zenbatu ezin diren irizpideetan lizitatzaileek % 50eko gutxieneko puntuazio-atalasea lortu beharko dute balio-judizioen mendeko irizpide guztietan. Horrela, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko honako puntu hauek lortzen ez dituzten eskaintzak: **17,5 puntu**

C GUTUN-AZALA: Balorazio automatikoko irizpideak. FORMULA MATEMATIKOAREN BIDEZ BALORATUTAKO ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA
65 puntu gehienez.

1.- KONTRATUAREN PREZIOA.- Gehienez 60,00 punturekin baloratuko da.

Baloratzeko, puntuaziorik handiena proposamen ekonomiko txikienari emango zaio, honako formula honen arabera:

$$\frac{\text{Proposamen ekonomiko txikiena}}{\text{Baloratu beharreko proposamena}} \times 60$$

2.- EZARRITAKO BERMEA HANDITZEA.- Gehienez 5,00 punturekin baloratuko da.

Puntu 1 ezarritako berme gehigarriko urte bakoitzeko

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KARATULA: 4. PUNTUA

ALDAERAK

EZ DA ALDAERARIK ONARTZEN

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KARATULA: 5. PUNTUA

EZOHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO ESKAINTZA BAT AINTZAT HARTZEKO PARAMETRO OBJEKTIBOAK

Balio ezohikoak edo neurriz kanpokoak txertatzearen ondorioz proposamenak bete ezin direla erabakitzeko parametro objektiboak honako hauek izango dira:

Kontratazio-mahaiak, 2017ko SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresa baten proposamena ezin betezkoa dela erabaki ahal izango du eskaintza ekonomikoa Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan xedatutako irizpide objektiboak aplikatuta ezohikoa edo desproportzionatua dela uste badu.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako moduan, ustezko anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzearen ondorioetarako, baxuena hartuko da; hori, halere, ez da eragozpena izango eskaintza bakarka edo taldekoa ez den beste enpresa batekin edo batzuekin batera aurkezteko, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte bat osatuta.

Nolanahi ere, 2017ko SPKLren 149.4 artikuluarekin bat etorriz, eskaintzak ez dira onartuko, baldin eta egiaztatzen bada anormalki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, nazionalak edo nazioartekoak, betetzen ez dituztelako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, 2017ko SPKLren 201. artikulua aplikatuz.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KARATULA: 6. PUNTUA

KONTRATISTAK OBREN HARRERAN ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Enpresa esleipendunak obren zuzendaritzari lagundu beharko dio. Horretarako, beharrezko dokumentazioa emango dio, obrak hartzen diren egunean honako hauek eman diezazkion jabeari: obraren amaierako dokumentazioa, obraren azken egoera deskribatzen duen memoria, Aginduen Liburuaren jatorrizko alea behar bezala beteta, eta alde guztiek sinatutako Kalitate Kontroleko Liburua.
Halaber, dokumentazio osagarri guztia entregatu beharko du, hala nola orri teknikoak eta materialen homologazioak, hornitzaileen datuak, etab.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

I – GARRAITZ UHARTEA PARKE ARKEOLOGIKO GISA BALIOZTATZEKO OBRAK PREMIAZKO PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, EUROPAR BATASUNAK-NEXT GENERATIONEU FINANTZATUTAKO BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARRUAN

I.- <u>KONTRATUAREN EDUKIA</u>

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea da **Garraitz uhartea parke arkeologiko gisa balioztatzeko** obrak gauzatzea, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera, eta kontratu-izaera izango du.

Kontratuaren xedeari dagokion CPV izendapena kodifikatzea:

45212350 Interes historiko edo arkitektonikoa duten eraikinak.
45454100 Zaharberritze-lanak.

2. EGIKARITZE-EPEA

- Kontratazio honen xede diren obrak egiteko epea LAU (4) HILABETEKOA izango da.
- Kontratista berandutzan dagoela ulertuko da igarotako epea igaro bada. Ez da beharrezkoa izango administrazioak horrelakorik aldez aurretik salatzea.

3. LIZITAZIO OINARRIAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

Honako hau izango da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:

EHUN ETA HOGEITA HAMAIKA MILA BERREHUN ETA HAMAIKA EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMO (131.211,22 €), gehi BEZari dagozkion HOGEITA ZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (27.974,36 €). Lizitatzaileek aurrekontua hobetu ahal izango dute.
Honela banakatuko da:
EMA: 111.942,20 €
GO+MI: 21.269,02 €
% 21eko BEZa: 27.974,36 €

Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz ematen den hori izango da, eta balio erantsiaren gaineko zerga aparteko partida batean sartuko da.

Kontratuaren prezioan txertatutakotzat joko dira aplikatu beharreko gainerako edonolako kanonak, tasak eta zergak, bai eta agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunarentzat sortzen diren gastu guztiak ere.

Kontratuaren prezioan prezio unitarioak sartuko dira, behar bezala banakatuta. Izan ere, prezio horiek kontratuak irauten duen bitartean aplikatuko dira.

Balio zenbatetsia honako hau izango da: 133.211,22 € (BEZik gabe)

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

4. FINANTZAKETA

Jarduketa, zati batean, Europar Batasuna-Next GenerationEUk finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kontura egingo da, laguntzaren zenbatekoa 140.000 €-koa izango delarik. Gainerakoa (21.185,58 €) Udalaren fondo propioekin egingo da.

5. ORDAINKETA MODUA

Egindako obrak aldizkako ziurtagirien bidez ordainduko dira, zuzendari eskudunak egin ostean, eta Udal Bulego Teknikoak onartuko ditu.

Obra-ziurtagiriak kontratistak egindako faktura bidez ordainduko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ordainketak konturako ordainketatzat hartuko dira: azkeneko neurketak egiten direnean zuzendu eta aldatu ahal izango dira, eta ordainketek ez dakarte berekin obrak onetsi eta obren harrera egiterik.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan prezioak ez dira berraztertuko.

7. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1.- Prezioa jasotzeko eskubidea bosgarren klausulan ezarritakoari egokituko zaio.

2.- Agiri honetan eta arau osagarrietan jasotakoez gain, kontratistaren betebehar bereziak dira honako hauek:

a) Kontratuaren xede diren lanak zuzenean egitea, kontratuan ezarritako klausulei eta kontratuaren oinarri den proiektuari eta udal-teknikari eskudunaren aginduei zorrotz jarraituz. Ezin izango dio kontratua osorik edo haren zati bat beste inori laga Administrazioak beren-beregi baimentzen ez badu.

b) Ezarritako epean behin betiko bermea sortzea, eta, hala dagokionean, berme osagarria.

c) Kontratua eskatzen zaion epean formalizatzea.

d) Kontratua indarrean dagoen bitartean, administrazio publikoekin kontratuak egiteko gaitasunari eutsiko zaiola bermatzea. Hamabost eguneko epean jakinarazi beharko ditu sor litezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak.

e) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak ordaintzea, besteak beste, ohar gisa, prentsan, fidantzak eratzean eta, hala badagokio, kontratua eskritura publikoan formalizatzean sortzen direnak, kopia eta guzti.

f) Laneko legerian, Gizarte Segurantzan, hitzarmen kolektiboetan, Laneko arriskuak prebenitzeko 31/1995 Legean, hori garatzen duten errege dekretuetan (bereziki langileen prestakuntzari eta babes indibidualeko ekipamenduak hornitzeari dagokionez) eta zerga-alorrean indarrean dauden xedapen guztiak betetzea; hala, udalbatzak eta lanen zuzendaritzak ez dute inolako erantzukizunik izango horiek betetzen ez badira.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

g) Obrak garatzeko denboran, eta berme-epea bete arte, obrak egitean gerta daitezkeen akatsez arduratzea.

h) Enpresa kontratistak jarraian deskribatutako aseguru-kontratu hauek kontratatu eta kontratu honen indarraldian zehar kontratu horiek mantentzeko betebeharra izango du:

- Eraikuntza/muntaketako arrisku orotako poliza, kontratuaren xede den obraren ondasunek eraikuntza- eta berme-aldian jasan ditzaketen kalteak estaliko dituena, esleipenaren zenbatekoaren mugaraino, ohiko arriskuen ondorioz, besteak beste: obra-hondakinak mugitzeagatiko gastuak, naturaren arriskuak, greba, matxinada, asaldura zibila eta terrorismoa, iraungitze-gastuak, ordainsari profesionalak, aparteko gastuak, lehendik zeuden ondasunei eragindako kalteak (hala badagokio), diseinu-akatsaren ondorioak eta berme-aldirako mantentze zabala egiteko estaldura.

Obran parte hartzen duten guztiak aseguratu gisa agertu behar dira, eta Lekeitioko Udala izango da horretarako kontratatutako aseguru-polizaren onuraduna.

- Erantzukizun zibileko poliza. Kalte-ordainaren muga ez da erantsitako koadroari dagokiona baino txikiagoa izango, eta hirugarrenei langileen, mendekoen, makinen eta ekipoen ekintzen ondorioz eragindako kalte material, pertsonal edo aurrekoetatik eratorritako kalteengatik izan dezaketen erantzukizuna estaliko du, bai eta esleipenaren xede diren obrak gauzatzean egindako lanengatik izan dezaketena ere, honako eskala honen arabera:

KONTRATUAREN ZENBATEKOA	BERMEAREN MUGA
150.000 eurora arte	75.000 euro
150.001 eta 600.000 euro artean	300.000 euro
600.001 euro eta 1.200.000 euro artean	900.000 euro
1.202.001 euro eta 3.000.000 euro artean	1.750.000 euro

Erantzukizun zibileko poliza horrek, gainera, honako hauek barne hartuko ditu: ugazaben erantzukizun zibileko estaldurak, biktima bakoitzeko gutxienez 150.000 €-ko azpimugarekin; erantzukizun zibil gurutzatua; lan-ondoko erantzukizun zibila eta defentsa-gastuak eta fidantzak. Lekeitioko Udala aseguratu osagarria izango da, baina hirugarrenaren izaera galdu barik.

i) Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 12. artikuluan xedatutakoa errespetatzea, baldin eta esleipendunak, kontratu honen xede diren lanak gauzatzearen ondorioz, udal-titulartasuneko fitxategietan jasotako datu pertsonalak kontsultatu behar baditu.

Era berean, kontratuaren esleipendunak bermatu beharko du, datuen tratamendua udal-lokaletatik kanpo egiten denean, fitxategiaren arduradunak datu pertsonalen tratamendua gauzatzeko baimena emango duela erabiltzaile batentzat edo erabiltzaile-profil batentzat, eta, nolanahi ere, fitxategi motari dagokion segurtasun-maila bermatuko dela, hori guztia indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

j) BEEPa betetzearen ondoriozko betebehar guztiak betetzea.

8. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1.- Kontratua ikuskatzea udaleko teknikariei dagokie. Teknikariek behar diren jarraibideak eman ahal izango dizkiote kontratistari, kontratua behar bezala betetzeko, kontratu-klausuletan oinarrituta eta alkatearen zuzendaritza- eta ikuskapen-eskumen gorenei kalterik egin gabe.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

2.- Administrazioak ezarritako zenbatekoak ordaindu beharko ditu bosgarren klausulan xedatutakoaren arabera.

9. BERMEAK

Kontratuaren adjudikaziodunak, bereganatutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eratu beharko du. Berme horren zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 izango da, BEZa aparte.

Aipatutako bermea eratzeko hamar laneguneko epea izango da, hura aurkezteko eskatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 108. artikuluan xedatutako edozein bitartekoren bidez eratu ahalko da. Eratu dela egiaztatzeko, bide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabili ahal izango dira. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio bete ezean, bere alde egindako adjudikazioa ondoriorik gabe geratuko da.

Bermearen itzulketa, guztizkoa nahiz partziala, hala badagokio, SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da, bermearen aldia agortzen denean eta adjudikaziodunak bere kontratuzko betebehar guztiak betetzen dituenean.

10. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratua egikaritzen hasteko, zuinketa-akta sinatu beharko da, udalak adierazten duen egunean.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara burutuko da, eta ez du obretan gertatutako galera, matxura edo kalteak direla-eta kalte-ordainik jasoko, SPKLren 239. artikuluan xedatutakoaren arabera ezinbestekoren bat jazotzen ez bada behintzat.

Nolanahi ere, obrak egitean, zorrotz bete beharko dira baldintza-agiri honetan ezarritako klausulak, baldintza-agiriari lotutako zehaztapen teknikoak, bai eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa ere (erregelamendua urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), aplikatu beharrekoari dagokionez. Bereziki, kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean garatuko da eta ahalmen horiek idatziz nahiz ahoz erabiliko ditu.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei egozteko moduko ekintza edo hutsegiteen ondorioz arriskuan ipintzen bada kontratua behar den moduan betetzea, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea eskatu ahal izango du Administrazioak.

11. IZAERA SOZIAL, ETIKO EDO INGURUMENEKOA DUTEN KONTRATUAK EDO BESTELAKO IZAERA DUTEN KONTRATUAK BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratistak nahitaez bete behar ditu indarrean dauden lege-xedapenak honako arlo hauetan: lana, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta higienea, laneko arriskuen prebentzioa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, kontratu honen xede den obrak egikaritzeko hartutako langileei dagokienez. Administrazioa erantzukizunetik salbuetsita egongo da, betebehar horiek bete ezean.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa zein izango den, kontratua esleituz gero.

Era berean, kontratua egikaritzean langileei aplikatuko zaizkien laneko baldintzei buruz eskatutako informazio guztia emango dute.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Adjudikaziodunak, kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako ordainsaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ez da inolaz ere hori baino kopuru txikiagorik ordainduko.

Kontratistak honako hau ere egin beharko du:

a) Kutsaduraren prebentziorako neurri egokiak hartzea, teknika erabilgarri onenak aplikatuz, bereziki.
b) Hondakinik ez sortzeko prebentzioa sustatzea, edo, hondakinak sortzen badira, honako lehentasun-hurrenkera honen arabera kudeatzea: prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi teknikoak edo ekonomikoak direla-eta prozedura horiek aplikatzea ere ezinezkoa balitz, hondakinak deuseztatzean ingurumenean eragina izatea saihestuko da, edo ahal den heinean murriztuko da eragin hori.
c) Energia, ura, lehengaiak eta beste baliabide batzuk efizientziaz erabiltzea.
d) Behar diren neurriak hartzea istripu larriak saihesteko eta istripuok pertsonen osasunean eta ingurumenean sor ditzaketen ondorioak mugatzeko, aplikatu behar den araudiari jarraituz.

Berariazko baldintza bereziak – BEEPtik ERATORRITAKO BETEBEHARRAK:

1/2022 instrukzioaren arabera, BEEP araudiaren arabera finantzatutako kontratuek HFP/1030/2021 Aginduaren 2. artikuluan jasotako printzipioak errespetatu behar dituzte, eta kontratuaren agiri zuzentzaileetan sartu behar dira.

Jarraian adierazten dira:

- Jomugak eta helburuak: Karatulan aipatu dira.

- Etiketatze berdea eta digitala: Karatulan aipatu dira.

- Arriskuaren analisia, ingurumenean egin daitezkeen kalte esanguratsuei (Do No Significant Harm, DNSH) dagokienez, eta emaitzen jarraipena eta egiaztapena, hasierako ebaluazioari dagokionez.

Gauzatzen diren jarduketek «ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa errespetatuko dute (do no significant harm - DNSH printzipioa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan (2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) eta hura garatzeko araudian xedatutakoa betez, bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio horren aplikazioari buruzkoa, bai eta Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Espainiaren berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eta haren Eranskin dokumentuan eskatutakoa ere.

Egiten diren jarduera guztietan, ingurumen-araudi nazionala eta EBkoa errespetatuko dira, eta, nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarreko legeriaren arabera aplikatzekoak direnean, bai eta ingurumen-legeriaren arabera aplikagarriak izan daitezkeen beste eragin-ebaluazio batzuk ere.

BEEPan jasotako egikaritze-neurriek ezin diete kalte esanguratsurik egin sei ingurumen-helburuei:
1. klima aldaketa baretzea;
2. klima-aldaketara egokitzea;
3. baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea;
4. ekonomia zirkularrerantz aurrera egitea;
5. kutsadura prebenitu eta kontrolatzea;
6. biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzea.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistek Europar Batasuneko eta Estatuko ingurumen-arloko araudia betetzen dela bermatuko dute, "kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipioaren arabera ("do no significant harm-DNSH" printzipioa) Gida Teknikoko ingurumenari (2021/C58/01).

Era berean, kontratu honen xede den jardueraren bat edo guztia azpikontratatuz gero, erakunde esleipendunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu azpikontratistek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren ildotik.

«Kalte nabarmenik ez eragitea» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoa (EO C 58, 2021.02.18koa, 1. or.) erabat betetzen dela bermatzeko, honako jarduera hauek baztertzen dira: i) erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien geroko erabilera barne; ii) EBko isurketa-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen emisioak erreferentziazko parametroen azpitik egongo ez direla aurreikusten dutenekin lotuta; iii) hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin zerikusia duten jarduerak; iv) hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalteak eragin diezazkiokeen jarduerak, DNSH ebaluazioa negatiboa den jarduerez gain.

Kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistek ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) betetzen dela justifikatu beharko dute, DNSH printzipiora egokitzeko aldeko ebaluazio baten bidez, edo, hala badagokio, XIII. ERANSKINAREN araberako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, hura betetzen dela egiaztatzeko autoebaluazio baten bidez edo aplikatu beharreko araudian jasotako beste bitarteko batzuen bidez. Nolanahi ere, erakunde esleipenduna erakunde kontratatzaileak «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzen dela ziurtatzeko hartzen dituen egiaztapen-mekanismoen eta neurri zuzentzaileen mende egongo da.

Printzipio hori errespetatzeko betebehar orokorraz gain, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek neurriak izan ditzakeen giza eskubideen baldintza espezifikoak bete beharko dituzte. Horrela, PRTRren 14. osagaiaren (1. inbertsioa) 8. paragrafoan ezartzen den bezala, birgaitzea, ekipamenduak eta azpiegiturak dakarten jarduketetan, DNSHren baldintza espezifiko hauek izango dira:

1. **Klima-aldaketa arintzea.**

Eraikinak birgaitzean, kontuan hartuko dira Eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako gidalerroak, ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izan daitezen, energia primario berriztaezinaren kontsumoa nabarmen murrizteko.

2. **Klima-aldaketara moldatzea.**

Birgaitze-neurriei esker, eraikinak klima-aldaketara moldatu ahalko dira; horretarako, lehendik dauden eraikinek ahalbidetzen dituzten aukeren arabera egokitzapen-irtenbideak hartuko dira eta eraikinak eraikin babestuak badira, babestu egingo dira, hala nola landare-estalkiak, eguzki-oihalak eta itzal-zonak erabiliz.

3. **Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.**

Ez da uste neurria kaltegarria izango denik baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarrirako eta babeserako. Neurriaren helburua da turismo-helmugak eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko estrategietara hobeto egokitzea, baliabide hidrikoen kontsumoa murriztea eta baliabide naturalak babestea, bereziki itsasokoak. Ur-aparatuak instalatzen direnean, Europar Batasuneko produktu-etiketaren bat izango dute. Obraren eragina saihesteko, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa saihestearekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatu eta landuko dira, uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan baten arabera. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea ezarri da, IEE Zuzentarauaren arabera, eta proiektu bakoitza diseinatzean baliabide hidrikoak modu jasangarrian erabiltzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta islatu dira.

4. **Ekonomia zirkularreranzko trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.**

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

(I) Inbertsio honetan ezarritako jarduketetan sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuan), gutxienez (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Hondakinen Europako Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz.
(II) Operadoreek eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan sortutako hondakinak mugatuko dituzte, EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera eta erabil daitezkeen teknikarik onenak kontuan hartuta. Eraispen selektiboa erabiliko dute substantzia arriskutsuak segurtasunez kendu eta manipulatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko; horretarako, materialak gaika kenduko dituzte, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sailkatzeko dauden sistemak erabiliz.
(III) Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna lagunduko dute ISO 20887 arauari dagokionez, eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko eta nola dauden diseinatuta ebaluatzeko, baliabideen erabileran efizienteagoak eta moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.

5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.

Ez da espero neurriak atmosferara, uretara edo lurzorura egindako emisio kutsatzaileak nabarmen handitzea, neurrien helburua baita, besteak beste, turismoak lurraldean duen presioa murriztea, jasangarritasunean oinarrituta. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo da, IEEren Zuzentarauaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudi nazionalaren arabera, eta, proiektu bakoitza diseinatzean, lurzoruaren eta uraren kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta jasoko dira. Energia fosilak erabiltzen dituzten berokuntza- eta hozte-sistemen ordez kutsatzen ez duten teknologiak ezartzera bideratutako jarduketen izaera orokorrak aireko emisioak nabarmen murriztea eta, ondorioz, osasun publikoa hobetzea ahalbidetuko du. Eraikinen birgaitzea sustatzeari dagokionez xedatutako jarduketen izaera orokorrak, energia-eraginkortasunaren kontzeptua barne, argi eta garbi aurreikusten du kutsatzaile atmosferikoen emisioak murriztuko direla, batez ere energia-kontsumoa murriztearen ondorioz.
Eraikuntzan erabiliko diren eraikuntza-osagaiek eta -materialek ez dute amiantoa edo substantzia oso kezkagarririk izango, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean agertzen den baimena behar duten substantzien zerrendaren bidez identifikatuta. Eraikuntzan erabiltzen diren eta erabiltzaileekin kontaktuan egon daitezkeen eraikuntzako osagai eta materialek 0,06 mg formaldehido baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m^3 bakoitzeko, eta 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko lurrunkor kantzerigenoen 0,001 mg baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m^3 bakoitzeko, CEN/TS 16516 eta ISO 16000-3 edo bestelako froga-metodo estandarizatuen bidez eta konparagarriak diren zehaztapen-metodoekin bat etorriz frogatu ondoren. Gainera, obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta neurri horri lotutako jarduketak egingo dira, betiere lurzoruak eta ura kutsatzeko arriskua dela-eta indarrean dagoen araudia betez.

6. Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.

Neurriak ez du ondorio kaltegarririk izango biodibertsitatean eta ekosistemetan, natura-, itsaso- eta lur-inguruneak babestuko dituelako, Espainiako turismo-politikaren elementu bereizgarri gisa. Birgaitze-jarduketak biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOren Munduko Ondareko guneak eta biodibertsitaterako funtsezkoak diren eremuak, bai eta beste eremu babestu batzuk ere) edo hurbileko eremuetan egiten direnean, Habitatei buruzko Zuzentarauaren 6. (3) eta 12. artikuluak eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 5. artikulua bete beharko dira. Gainera, nahitaezkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) egingo da, IEE Zuzentarauaren arabera.

Jarduketak diseinatzean eta garatzean DNSH printzipiora egokitzeko, honako gida orientagarri hau erabili ahal izango da:
https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicion-verde/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf

-**Kontratistak eta azpikontratistek funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa emateko betebeharra**, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan xedatutako

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

moduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuan ezarritako baldintzetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko, zeina kontratistaren eta azpikontratisten erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko baita (XIV. eranskina).

-Komunikazioa.

BEEPeko programa guztiak gauzatzeko, nahitaezkoa da "BEEPren markaren eskuliburua" erabiltzea. Horrek esan nahi du sortzen diren agiri, aurkezpen eta gainerako guztiek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren identifikazio-elementuak jaso behar dituztela, eskuliburu horrek ezartzen dituen baldintza zehatzetan, bereziki "R" aren logotipoari dagokionez, Espainiako Gobernuaren identifikazio-armarriarekin batera.

"BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN KUDEATZAILE ETA ONURADUNENTZAKO KOMUNIKAZIO ESKULIBURUA" erreferentzia izan daiteke horretarako: 23112023 MANUAL DE COMUNICACIÓN PARA LOS GESTORES DEL PLAN.pdf (hacienda.gob.es)

Komunikazioaren, publizitatearen eta zabalkundearen arloko honako betebehar hauek bete beharko dira:

a) Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzkoak, aplikatu beharreko Europako eta Estatuko araudiarekin bat etorriz, eta, bereziki, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan jasotako betebeharrekin bat etorriz. Inbertsioak garatzen dituzten jarduketen informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, paperezko argitalpenak eta argitalpen elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, iragarkiak eta prentsako iragarkiak, ziurtagiriak, etab.), honako logo hauek sartu beharko dira:

1. Europar Batasunaren ikurra;
2. Europar Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunak finantzatua - Next Generation EU» testua ere jasoko da;
3. 821/2014 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak kontuan hartuko dira. Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu, programaren ekarpenak transferitzeko eta kudeatzeko modalitate zehatzei, finantza-tresnei buruzko informazioaren aurkezpenari, eragiketen informazio- eta komunikazio-neurrien ezaugarri teknikoei eta datuak erregistratu eta biltegiratzeko sistemari dagokienez. Honako webgune hau ere kontsulta daiteke: http://publications.europa.eu/code/es/es-5000100.htm, eta ikurraren adibideak deskargatu hemen: https://europa.eu/european-union/about-eu/symbols/flag_es#download.

b) Onartutako inbertsioei buruz edozein hedabidetan egiten den aipamen orotan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzatu dituela adierazi beharko da (logotipo ofizialak hemen eskura daitezke: https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/articles/5221643005073-Logotipos-de-los-diferentes-departamentos-ministeriales), bai eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ere.

c) Onartutako inbertsioei buruz edozein hedabidetan egiten den aipamen orok Berreskurapen Planaren logoa erabili beharko du hedabide gisa. Esteka honetan dago eskuragarri: http://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual.

d) Eremu honetan garatzen diren eta kontratistek/azpikontratistek aurkeztutako deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztietan (azterlanak, txostenak, inkestak...) honako erreferentzia hau jaso beharko da hala goiburuan, nola garapen-gorputzean: «Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatuta – NextGenerationEU».

2.- Informazio-kartel eta plaka guztiak ondo ikusteko moduan eta jendeak ikusteko moduan jarri beharko dira, eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da.

-**Dokumentazioa zaintzeko betebeharra**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan ezarritako betebeharra betez, kontratistek eta azpikontratistek erregistro bat edukiko dute, eta finantzaketa-dokumentuak, datu estatistikoak eta finantzaketarekin lotutako gainerako dokumentuak gordeko dituzte, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, bost urtez, saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketa egin ezean, eragiketa egiten denetik zenbatzen hasita. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei buruzko erreklamazioen izapidetzeari edo OLAFen ikerketei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira harik eta auditoretza, errekurtso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek jasotzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra.
Erregistroak eta dokumentuak jatorrizkoak izango dira, edo jatorrizkoen kopia konpultsatuak, edo oro har onartutako datu-euskarrietan gordeko dira; besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik dauden dokumentuak. Dokumentuak bertsio elektronikokoak badira, ez da jatorrizko dokumenturik beharko baldin eta dokumentu horiek aplikatu beharreko lege-baldintzak betetzen badituzte, jatorrizko dokumentuen baliokidetzat eta auditoretzaren ondorioetarako fidagarritzat jo ahal izateko.

-Europako Batzordearen, Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren **kontrolak beteko ditu**, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea izango dute.

-Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.

Lizitatzaileek proposamenak aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe eta erreserbarik gabe onartzen dutela Lekeitioko Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana. Plan hori kontratuaren araubide juridikoaren atalean jasota dago, eta haren xedapenak oso-osorik bete behar dira, erabat errespetatuz autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudia iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokionez, bai eta Europar Batasuneko finantza-interesak babesteari buruz erakundeek egiten dituzten erabakien arabera ere. Nolanahi ere, lizitatzaileek lehia askearen, gardentasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatu beharko dituzte lizitazio-fase osoan, bai eta kontratua gauzatu eta betetzearen printzipioa ere; horregatik, kontratazio-organoari berehala jakinarazi beharko dizkiote igartzen dituzten eta kontratazio-espedienteari eragin diezaioketen gatazka-egoera potentzial edo erreal guztiak.
-Kontratazio-espediente hori gauzatzeko, Europako Batzordeak, Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak bete beharko dira. Horretarako, organo horiek kontratuari buruz eskatutako informazio guztia eskuratu ahal izango dute.

-Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea behartuta dauden pertsona guztiek (XII. eranskina).

-Estatuko laguntzekiko bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa. Kontratistak eta azpikontratistak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, finantzaketa bikoitza saihesteko neurriak betetzeari buruzkoa, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluaren XVI. eranskinaren arabera.

- Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratu zuen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluaren bigarren atalean jasotako **kontratisten eta azpikontratisten identifikazioa** (2021eko irailaren 30eko BOE, 234. zk.), zehazki:
a) Enpresa kontratistaren edo azpikontratisten IFZ.
b) Izen-abizenak edo sozietatearen izena.
c) Enpresa kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten helbide fiskala.
d) Kontratistek egiaztatzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan edo Zergen Foru Administrazioaren errolda baliokidean izena eman dutela. Erroldan, lizitazio-prozeduran parte hartzeko egunean benetan garatzen den jarduera zein den adierazi behar da.
e) Tartean dauden Administrazio Publikoen artean datuak lagatzea onartzeko adierazpena, aplikatu behar den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat (X. eranskina).
f) Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak betetzeari dagokion konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpena (XI. eranskina).

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza berezitzat hartuko dira, eta horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarri ahalko dute.

12. KONTRATUA EGIKARITU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA

Obrak burutzean kontratistaren mendean beharrean dabiltzan beharginek egindako jardueren, akatsen edo arduragabekerien ondorioz, edo obrak txarto antolatu, babestu eta seinaleztatu direlako edozein pertsona, jabetza, zerbitzu publiko edo pribaturi kalte-galeren bat eragin ezkero, kalte-galera horien erantzulea kontratista izango da.

13. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan xedatutako egoeretariko bat gertatzen denean, bereziki kontratua esleitu ondoren prestazioa onartutako espezifikazio teknikoetara, ingurumenekoetara, hirigintzakoetara, segurtasunekoetara edo irisgarritasunekoetara egokitu behar bada, baldin eta lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira. Kasu horretan, Administrazioak obren irismena aldatzeko aukera izango du, behar bezala justifikatuta, eta aurrez aipatutako balizko aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

SPKLren 242.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta aldaketak direla-eta kontratuan sartuta ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira, administrazioak finkatuko ditu aldaketa horien prezioak, eta kontratistak onartzen ez baditu, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahalko ditu, finkatutako prezio berberetan, edo zuzenean egikaritu ahalko ditu.

14. OBRAK ONARTZEA ETA BERMEAREN EPEA

Obrak amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, obrak hartzeko ekintza formala eta positiboa egingo da, eta horren akta egingo da.

Harreran, kontratistak honako betebehar hauek bete dituela egiaztatuko da:

1) Obrak garbitzea. Kontratistak hasierako egoerara itzuli beharko ditu obrek eragindako eta okupatuta ez dauden eremuak.

2) Kontratua behar bezala betetzea.

3) Adjudikazio-irizpideak betetzea.

4) Gauzatze-baldintzak betetzea.

Obrak egoera onean eta xedatutako aginduen arabera eginda badaude, udal honek bere ordezkari izendatutako zuzendariak hartutzat joko ditu, eta dagokion akta egingo du. Akta hori obrak jasotzean daudenek sinatu beharko dute, eta orduan hasiko da berme-aldia. Kontratistak obraren harrerara joan behar du. Egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betebehar hori betetzen ez badu, udalaren ordezkariak aktaren ale bat bidaliko dio, hamar eguneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Alegazio horiek kontratazio-organoak ebatziko ditu.

Alabaina, obrak ez badaude jasotzeko moduan, halaxe adieraziko da aktan. Orobat adieraziko dira obra-zuzendariak sumatutako akatsak, eta beharrezko diren jarraibideak ere zehaztuko dira, bai eta akatsak zuzentzeko epe bat ere. Aipatutako epea igarota kontratistak ez baditu oraindik zuzenketak egin, bi aukera izango ditu orduan: beste epe bat ematea (luza ezinezkoa) edo kontratua suntsiaraztea, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Halaber, HAMABI (12) HILABETEKO epea edo esleipendunak eskainitako epea ezarri da, formalki jasotzeko datatik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori berme gisa finkatzen da, SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean xedatutako ondorioetarako.

Hala ere, kontratistak kontratua ez duelako bete, obra eraikuntzaren ezkutuko akatsengatik berme-epea amaitu denean suntsitzen bada, berak erantzungo du kalte-galerengatik hamabost urteren buruan, obra hartzen den unetik zenbatzen hasita. Epe horretan kalte edo galerarik gertatuko ez balitz, kontratista edozein arduratatik aske geratuko litzateke.

15. EZ-BETETZEENGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

Kontratistari zigorrak ezarriko zaizkio, baldin eta hemen aurreikusitako auziren batean badago:

a) Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzeagatik. Kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla bide, kontratua egikaritzeko epea (epe osoa edo zatika bete beharrekoa) atzeratu egiten bada, Administrazioak kontratua suntsiarazi ahal izango du eta kontratistak bermea galduko du. Bestela, kontratistari zigorra ezarri ahal izango zaio, hau da, zenbateko jakin bat ordaindu beharko du kontratistak; hona hemen proportzioa: 3 euro egunean, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenarengatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua ebazteko edo zigor berriak jarriz gauzatzen jarraitzeko.

b) Prestazioak zati batean ez betetzeagatik edo akatsekin betetzeagatik. Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratistak kontratuan definitutako prestazioen zati bat betetzen ez duenean, Administrazioak bi aukera izango ditu: suntsiaraztea edo zigorrak jartzea. Zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 10 izango dira, BEZik gabe, betiere zigorrek kontratuaren prezio osoaren 100eko 50 gainditu gabe.

c) Kaudimenaren arloan ezarritako konpromisoak ez betetzeagatik. Kaudimena 19. e) klausulan eskatutako bitarteko material edo pertsonalekin osatzeko betebeharra betetzen ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10en baliokide den zigorra ezarri ahal izango du.

d) Zigorrak kontratuaren baldintza bereziak ez betetzeagatik. Kontratua egikaritzeko klausula berezien bidez hartutako konpromisoak (sozialak, etikoak, ingurumenekoak edo beste mota batekoak) betetzen ez badira, kontratuaren prezioaren % 3 eta % 10 arteko zigorra ezarriko da, BEZik gabe, 2017ko SPKLren 192.1 artikuluaren arabera.

16. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 208. artikulutik 213.era bitartekoetan oro har ezarritakoa bete beharko da, zehazki, lege horren 245. eta 246. artikuluetan obra-kontratuetarako ezarritakoa, eta, hala badagokio, baldintza-agiri honen 11. klausulan ezarritakoa. Kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifiko gisa, Legearen 202. artikuluan oinarrituta ezarritako baldintzak ez betetzea ezartzen da.

Nolanahi ere, kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik kontratua suntsiarazten bada, testu horren 213.3 artikuluan xedatutakoa beteko da.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

17. ADMINISTRAZIOAREN ONURABIDEAK

Administrazioari dagozkio honako eskumen hauek: kontratua interpretatzea, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, ebaztea eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak xedatutako mugen barruan eta horien baldintza eta ondorioen arabera.

II.- <u>KONTRATATZEKO PROZEDURA</u>

18. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena premiazko prozedura irekiaren bitartez burutuko da.

19. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hori baliabide elektronikoen bidez izapidetuko da, bat etorriz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin. Ondorioz, Udalak lizitatzaileekin izango duen harremana ere bide horietatik izango da.

20. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK.

Espediente honekin lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira honako prozesuari jarraikiz:

1) Hartzailearen esku jartzea.
2) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukian sartzea.

Epeak jakinarazpenaren oharra jasotzen denetik hasiko dira zenbatzen (jakinarazpenaren xede den egintza egun berean kontratatzailearen profilean argitaratzen bada) edo jakinarazpena hartzen denetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzailearen profilean).

Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotzen direnean, hartzaileak ez badu onartzen edo ezesten badu, iraungitzat joko da eta jakinarazpenaren izapidea formalki betetzat joko da.

21. BALIOZTAPEN-IRIZPIDEAK.

Honako hauek dira eskaintzak baloratzeko irizpideak, kontratua esleitzeko eta eskaintzak haztatzeko oinarri izango direnak:

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

AUTOMATIKOKI KONTUAN HARTZEKO IRIZPIDEAK:	65 puntu
Proposamen ekonomikoa. Baloratzeko, puntuaziorik handiena proposamen ekonomiko txikienari emango zaio, honako formula honen arabera: Proposamen ekonomiko txikiena ---------- x 60 Baloratu beharreko proposamena • Eskaintzak baztertu egingo dira egiaztatzen bada anormalki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen ez dituztelako, nazioan zein nazioartean, baita indarreko sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea ere, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.	60 puntu
2. Ezarritako bermea handitzea. Ezarritako berme gehigarriko urte bakoitzeko: 1 puntu	5 puntu
BALIO-JUDIZIO BATEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK:	**35 puntu**
1.- Txosten teknikoa: 20 puntu Lizitatzaileak obraren gauzatzea aztertzen duen memoria bat egin beharko du. Obraren zailtasun nagusiak eta lanen kokapenak dakartzan baldintzak adierazi, deskribatu eta aztertuko dira. Lizitatzaileak proiektuaren ezagutzatik, azterketatik eta egiaztapenetik eratorritako dokumentazioa sartu ahal izango du eskaintzan, neurketen eta aurrekontuaren azterketa eta egiaztapenak barne. Lizitazioaren xede den kontratuaren deskribapena zuzena, zehatza, arrazoitua eta egokia izatea baloratuko da. 1.1. Proiektuaren analisia (6 puntu) Eraikuntza-prozesu esanguratsuenen deskribapena (3 puntu); horien ordena azaldu behar da eta proposamena arrazoitu (3 puntu) 1.2. Obraren zailtasun nagusiak hautematea (10 puntu) Obraren puntu kritikoak definitzea (5 puntu); modu arrazoituan azaldu beharko dira eta zailtasunak nola konponduko diren zehaztu beharko da (5 puntu) 1.3. Ingurumen-alderdiak (4 puntu) Obrak gauzatzearen ondoriozko inpaktuak minimizatzeko proposatutako neurriak zehaztea: hondakinen kudeaketa egokia, ekosistemen eta landarediaren gaineko eragina murriztea, ingurunean ahalik eta eragin txikiena bermatzeko mugikortasun-neurriak, eta abar.	20 puntu
2.- Lanen programa: 15 puntu Asmoa da proposatutako antolamendu espezifikoa ezagutzea, aurreko atalean aztertutako alderdiekin bat etorriz, kontuan hartuta obraren berezitasuna eta errendimenduetan eta epeetan duen eragina. Jarduera bakoitzeko, eraikuntza-metodoa eta gauzatzeko modua adieraziko dira, proposatutako ekipoak zehaztuko dira, aurreikusitako errendimenduak justifikatuko dira eta eraginak eta interferentziak murrizteko bitartekoak zehaztuko dira. Egindako antolamenduaren zuzentasuna eta arrazoiketa baloratuko dira, bai eta jarduera bakoitzaren xehetasun- eta deskribapen-maila ere. 2.1. Obraren kokapenak lan-programan duen eragina aztertzea (7 puntu) 2.2. Lanen antolamendu espezifikoa eta aurreikusitako metodologia (5 puntu) Lan-eremuetan egin beharreko lanen deskribapena, erabiliko diren bitartekoak, ekipo kopurua eta horien antolamendua adierazita. 2.3. Aurreikusitako epea betetzen dela bermatzeko beste antolamendu batzuk aztertzea (3 puntu)	15 puntu

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Obraren jarraipena errazteko mugarriak ezartzea eta obran egon daitezkeen atzerapenak berreskuratzeko proposamen praktikoak egitea baloratuko da.	

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- Mahaiburua: Lekeitioko Udaleko alkatea, edo berau ordezten duena.
- Mahaikideak:
  - Kontratuaren xedearekin zerikusia duen arloko udal-teknikari bat.
  - Lekeitioko Udaleko kontu-hartzailea.
  - Lekeitioko Udaleko idazkaria.
- Mahaiko idazkaria: Kontratazioko administraria

22. KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Kontratazio-jardunbide honetan, pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute, beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik ez badute.

Enpresaburuek, gainera, kontratu honen xede den jarduera egiteko edo zerbitzua emateko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Enpresa esleipendunak, gainera, pertsona fisikoak edo juridikoak izan beharko dira, eta enpresaren helburuak edo jarduerak zerikusi zuzena izan beharko du kontratuaren xedearekin. Era berean, kontratua behar bezala gauzatzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material izan beharko ditu.

Bestalde, Batasunetik kanpoko atzerriko enpresek SPKLren 68. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte.

23. SAILKAPENA ETA KAUDIMENA.

Lizitazio honen xede den kontratua **Garraitz uhartea parke arkeologiko gisa balioztatzeko** denez, **ezinbesteko baldintza** izango da **K-07** sailkapena izatea, ***"Ondasun higiezin historiko-artistikoen zaharberritzea"***, **1. kategoriakoa**, gutxienez.

Ezingo dute lizitazio honetan parte hartu kontratu honen zehaztapen teknikoak prestatzeko orduan esku hartu duten enpresek, beti ere esku-hartze horrek murrizketak eragiten baditu lehia askean edo gainerako enpresa lizitatzaileen aldean lehentasunezko trataera sortzen badu.

24. SEKTORE PUBLIKOKO LIZITATZAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALEAN INSKRIBATZEA.

Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egotean, egiaztatuta geldituko dira enpresaburuaren gaitasunari buruzko baldintzak, hots, beren nortasuna, jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, gaitasun profesionala, sailkapena eta inskribatutako gainerako inguruabarrak, bai eta kontratatzeko debekurik dagoen ala ez ere.

25. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA AGIRIETARAKO SARBIDEA.

Lizitazio hau udal honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da. Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan dago.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez, 13 egun naturaleko epearen baitan, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta adierazitako epealdiaren azken eguneko 14:00etara arte.

Udal honetako kontratatzailearen profilera sarbidea honako helbide elektronikoaren bitartez egin ahal izango da: www.lekeitio.eus. Leku horretan bertan agiriak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo agiri osagarriei buruz bestelako informaziorik eskatzekotan, eskaintzak jasotzeko ezarri den azken eguna baino hiru egun lehenago emango da, betiere eskaintzak jasotzeko ezarri den epe hori amaitu baino lau egun lehenago gutxienez egin bada eskabidea.

Bat etorriz SPKLaren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoarekin, pleguei buruzko informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria ezin izan denean adierazitako epeen barruan aurkeztu, edo eskaintzak lekuan bertan egindako bisita baten ostean edo pleguari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu ostean soilik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea komeni bezain beste luzatuko da. Hala, ukitutako hautagaiek eskaintzak egin ahal izateko beharrezko informazio guztiaren berri izango dute.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko deskribatutako bide elektronikoetatik aurkezten ez diren eskaintzak.

Proposamenak Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan aurreikusitakora egokitu behar dira, eta horiek aurkezteak dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horiek, salbuespen edo erreserbarik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du eskaintza bat baino gehiago egin, aldagaiak onartzea albo batera utzi gabe. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa elkartean antolatuta proposamenik sinatu bakarka sinatu badu, ez eta behin-behineko elkarte batean baino gehiagotan ageri ere. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak sinatutako proposamen bat ere ez da onartuko.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak eta adjudikazioa iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLren xedapenek diotena baztertu gabe, hautagai eta lizitatzaile horiek eskaintzarekin igorritako informazioa isilpekoa dela adierazi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

26. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA.

Proposamenak horretarako gaitutako helbide elektronikoan aurkeztuko dira (https://egoitza.lekeitio.eus/kontratazioa/licitacion/oferta/asistenteInscripcion?numexpediente=B057-2024-00001), lizitazio-iragarkian zehaztutako epean eta ezarritako ordua baino lehen. Eskaintzak sinadura elektroniko aitortuaren bidez sinatuta egon beharko du, plataformak onartutako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile batek baliozkotasunez emana izan beharko du, eta dokumentuaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatu beharko ditu, Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen zenbait alderdi arautzeko azaroaren 11ko 6/2020 Legean eta kontratazio publiko elektronikoko gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Enpresa lizitatzaileek gaitutako Interneteko helbidetik eskuratu ahalko dute gutun-azal digitalaren zerbitzua. Helbide horretan, eskaintza prestatzeko eta aurkezteko web-inprimakiak eskuratu ahalko dira. Proposamena bidaltzeko unean, onartutako ziurtapen-erakunde batek emandako ziurtagiri digital batekin sinatu beharko da eskaintza.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Une horretan, nabigatzaileak, lizitatzailearen ordenagailuan bertan, eskaintza jatorrian zifratuko du, lizitazio-plataformara bidaliko da kanal seguru baten bidez eta gordailu seguru batean gordeko da. Berreskuratzeko, beharrezkoa izango da sarbide-eskubideak izatea. Sarbide-eskubide horiek bakarrik izendatutako zaintzaileek dituzte, eta ezarritako irekiera-epea iristen denean beren nortasuna baliozkotu beharko dute.

Edozein arrazoi dela-eta enpresa lizitatzaileak ezin badu eskaintza bidali, bi fasetan bidali ahalko du eskaintza:

Lehenengo fasean, enpresa lizitatzaileek posta elektronikoz (udala@lekeitio.com) aurkeztu ahal izango dute eskaintzaren hatz-marka digitala, betiere eskaintzak aurkezteko epean bidaltzen badute. Eskaintzaren "hash" hatz-marka elektronikoa datu multzoa da, eta hori sortzeko prozesuak bermatu egiten du datuak eskaintzaren beraren edukiarekin argi eta garbi erlazionatzen direla. Gainera, eskaintzaren edukian izan daitezkeen aldaketak atzematea ahalbidetzen du, osotasuna bermatuta. Izan ere, lizitatzaileak bidali duen unetik haren edukia ez dela aldatu egiaztatzeko aukera ematen du. Lizitatzaileek beren eskaintzaren hatz-marka elektroniko transkribatua (ez irudia) bidali beharko dute (udala@lekeitio.com) helbide elektronikora, espediente-zenbakiarekin batera, lizitatzailearen identifikazio-datuekin batera, Kontratazio Mahaiak egiaztatu ahal izan dezan aztarna digital hori bat datorrela bidali ondoren aurkeztutako eskaintzaren hatz-markarekin.

Bigarrenean, eskaintza bera bidali beharko dute, lizitazio elektronikorako gaitutako ohiko mekanismoaren bidez, hatz-marka igorri zutenetik gehienez 24 ordu barru. Bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da.

Ezin bada eskaintza baten edukira sartu artxiboa kaltetuta dagoelako, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako kopia lokalera jo daiteke, eskaintzaren hatz-marka digitala eta kontratazio-organoaren esku dagoena bat datozela egiaztatuta.

Eskaintza bidaltzen duen pertsona edozein izan daiteke; hala ere, eskaintza elektronikoa enpresaren edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatuta igorri beharko da. Beraz, bi aukera daude:

1) Eskaintza osoa elektronikoki sinatzea, enpresa edo erakundeko ahaldun(ar)en ziurtagiriarekin; horrek baliozkotasuna emango dio aplikazioaren inprimakietako informazioari.

2) Edo ziurtagiri digitala duen pertsona batek eskaintza bidaltzea. Eskaintza elektronikoa osatzen duten dokumentu elektronikoak erantsiko dira, enpresa edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatuta.

«A» GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA»

Gutun-azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

1.- Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako helbide elektroniko bat aukeratzea, bat etorriz SPKLren 15. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Helbide horretan egingo dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

2.- Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, bai eta baldintza-agiri honetan kontratua eskuratzeko ezarritako baldintzak ere. Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formulariora egokituko da. Ikus II. eranskina.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hala ere, kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozedura behar bezala garatzen dela bermatze aldera, kontratuaren adjudikaziodun izateko agiri honetan ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, betiere, adjudikazio egin aurretik.

Enpresen aldi baterako elkarte batean (ABEE) lehiatzen diren operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, eta horietako bakoitzak, izenak, inguruabarrak eta ABEEan izango duten partaidetza zehaztu beharko dituzte.

SPKLaren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Loteetan banatzen bada, kaudimen-baldintza desberdinekin, lote bakoitzeko edo kaudimen-eskakizun berak aplikagarri daukan lote-talde bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.

Proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da Legean eta agiri honetan eskaturiko nahitaezko nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko une erabakigarria.

«B» GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- «BALIO JUDIZIO BATEN BIDEZ BALIOETSI BEHARREKO IRIZPIDEAK»

Gutun-azal horrek balio-judizio baten mende dauden dokumentuak barne hartuko ditu. Agiri honen 21. klausulan zehaztu dira.

«C» GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI BALIOETSI BEHARREKO IRIZPIDEAK»

Gutun-azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

- I. eranskinean ezarritako ereduarekin bat datorren proposamen ekonomikoa.
- Unitateko prezioen zerrenda.
- Berme epeari buruzko proposamena
- III-XVII eranskinak, behar bezala **beteta eta sinatuta euskaraz eta gaztelaniaz.**

Gutun-azal honetan ez dira inola ere sartu behar memoria teknikoa, lan-programa edo adjudikazio-irizpideei dagozkien eta balio-judizio baten arabera baloratu behar diren eta “B” gutun-azalean sartu behar diren bestelako datuak.

“C” gutun-azalean datu horietakoren bat sartzen bada, ez dira dokumentu horiek baloratuko; beraz, automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio adjudikatuko.

OHARRA: Ez ahaztu eskaintzak modu digitalean sinatzeaz eta gutun-azalak enkriptatzeaz.

27. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN IREKITZEA ETA TRATAMENDUA ETA ENPRESEN HAUTAKETA

Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskaerak baloratu aurretik, kontratazio-organoaren titularrak honako informazio hau bildu eta txertatuko du ZAEAren MINERVA tresnan:

1. Eragiketak CoFFEEn zuen erreferentzia-kodea (CRO).
2. Kontratazio-organoko kideen eta kide anitzeko laguntza-organoko kideen zerrenda, izen-abizenak eta IFZ adierazita.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

3. Prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen zerrenda, izen-abizenak edo IFZ adierazita. Pertsona juridikoak izanez gero, sozietatearen izena eta IFZ adieraziko dira. Parte-hartzaileak ez badu Espainiako IFZrik, MINERVAk ez du azterketa egiteko informaziorik edukiko; kasu horretan, bandera beltzak identifikatzeari lotutako eragiketa gauzatuko da.

Datuak gurutzatu ondoren, MINERVAk hurrengo egunean emango dio interes-gatazka egoteko arriskuaren analisiaren emaitza kontratazio-organoaren titularrari. Analisi horretatik, bandera gorriak eta/edo beltzak detektatu ahalko dira (edo ez):

- Bandera gorririk aurkitu ez bada, prozedurak aurrera jarraituko du.
- Bandera gorri bat edo gehiago aurkitu badira, eragindako erabakitzailearen egoera argitu beharko da. Ezin izango da prozedurarekin jarraitu egoera argitu arte. Horretarako, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio. Agindu hori BEEPa betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa da.
- Bandera beltz bat edo gehiago detektatu badira, ez da prozedura automatikoki etengo. Kasu horretan, kontratazio-organoak benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko die parte-hartzaileei. Informazio hori bost egun balioduneko epean eman beharko diote kontratazio-organoari, informazio-eskaera egin zenetik zenbatzen hasita. Informazioa entregatzen ez badute, parte hartzen ari diren prozeduratik baztertuko zaie.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. «A» GUTUN-AZALA IREKITZEA

Mahaiak «A» gutun-azala elektronikoki irekiko du eta gutun-azal horretan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu, eragindako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzen ditzaten.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak udalaren kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2. «B» GUTUN-AZALA IREKITZEA

«B» gutun azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten mendean dauden irizpideena, kontratatzailearen profilean gutxienez 48 ordu lehenago iragarriko den lekuan, egunean eta orduan irekiko da. Xede horietarako, dokumentazio horretako akatsak edo hutsak zuzendu behar badira, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du, 817/2009 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki onartzen duenaren, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. «C» GUTUN-AZALA IREKITZEA

«B» gutun-azala ireki eta bertako dokumentazioa baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak «C» gutun-azala irekiko du, udalaren kontratugilearen profilean iragarriko den lekuan, egunean eta orduan. Ondorio horietarako, dokumentazio horretako akatsak edo omisioak zuzendu behar izanez gero, Mahaiak, gehienez ere, sei egun balioduneko epea emango du zuzenketa egiteko, aipatutako 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz.

Egintza horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizioen mendeko irizpideei esleitutako balioespena jakinaraziko da.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

4. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu (puntu gehien dituenetik puntu gutxien dituenera) eta kontratua adjudikatzeko proposamena hori burutu behar duen kontratazio organoari aurkeztuko dio.

Ez ohiko moduan baxutzat jo daitezkeen proposamenak identifikatzen direnean, eskaintzen izaera neurrigabearen edo ohiz kanpokoaren adierazpenak aurretik eskaintza horiek aurkeztu dituen lizitatzailearen edo, hala badagokio, lizitatzaileen entzunaldia eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa beharko ditu, SPKLren 149. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Kasu horretan, kontratazio-organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusirik, xedatuko du adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izango dela, Administrazioak ase ahal izango duela balioztatzen dena.

Aitzitik, kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete ohiz kanpoko eta neurrigabeko balioak sartzearen ondorioz, sailkapenetik baztertuko du eta adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izan dadila xedatuko du, sailkatutako ordenarekin bat etorriz.

Aipatutako hori guztia espedientean jasoko da, nahitaez zabaldu beharko diren kasuan kasuko aktetan.

5. ERREKERIMENDUA LEHENENGO SAILKATUARI

Aurreko jarduketak egin ostean, kontratazio-zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jarraian zehaztutako jarduketak egin ditzan edo agiriak aurkez ditzan:

a) Beste pertsona edo erakunde baten ordezkaritzan jardun bada, notario-ahalordea, udal honek askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratu edo aldatzeko eskritura, bidezkoa bada, Merkataritza Erregistroan behar den moduan inskribatutakoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu ahal zaion merkataritza-legediaren arabera inskribatuta egotea eskatu ahal denean. Hori beharrezkoa ez bada, eraketa-eskritura edo -agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

Espainiakoak ez diren baina Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresaburuen kasuan, egiaztatu beharko dute dagokion erregistroan izena emanda dutela, beren estatuaren legeriarekin bat eginez. Bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango dute, aplikagarriak diren erkidegoko xedapenei jarraikiz.

Gainontzeko enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Espainiak dagokion estatuan (enpresaren helbidea zein lurralde-eremutan dagoen aintzat hartuta) daukan Diplomazia Misio Iraunkorraren edo kontsuletxearen txostenaren bitartez.

c) Kontratuaren xedeari dagokion JEZaren epigrafean alta emanda dagoela frogatzea, alta aurkeztuta uneko ekitaldia bada, edo JEZaren azken ordainagiria gainerako kasu guztietan. Bi kasuetan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena behar da.

Enpresa lizitatzaileek berariazko baimena eman badute administrazio honek ekonomia-jardueren gaineko zergari buruzko datuak eskuratzeko, Lekeitioko Udalak, datu-bitartekaritzako plataformen bidez, kasuan kasuko ogasunek eman beharreko ziurtagiriak eskatuko ditu (I. eranskina).

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

d) Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala azaltzeko egiaztagiriak, agiri honen 23. puntuan ezarritako bideen bidez.
Horretaz gain, kontratua egingo duten langile arduradunen izenak eta prestakuntza profesionala zehaztuko dituzte. Horri dagokionez, adierazten da adjudikaziodunak ezingo dituela pertsona horiek ordezkatu administrazio honen aldez aurreko baimenik gabe. Inguruabar hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honetan bertan aipatutako erregistro ofizialen baten ziurtagiria edo erkidegoko ziurtagiria aurkeztu.

e) Lizitazio batean hainbat enpresek Aldi Baterako Enpresa Elkartean eratuta parte hartzen badute, elkartea osatzen duen bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna daukala, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo duen xedearen zatia azalduko da, guztien kaudimenari buruzko baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Enpresa atzerritarrek espainiar epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen direlako adierazpena egin behar dute, zuzenean edo zeharka kontratuak ekar litzakeen gorabehera guztietarako. Lizitatzaileak atzerritar jurisdikzio foruari (baleuka) uko egingo dio.

g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak dituela egiaztatzen duen frogagiria.

Lekeitioko Udalak, datu-bitartekaritzako plataformen bidez, enpresa lizitatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela ziurtatzen duten frogagiriak eskatuko ditu.

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Lekeitioko Udalak dokumentu horiek aurkezteko eskatu ahal izango du.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

i) Administrazio-klausula berezien agiriaren 7.h puntuan adierazitako polizen eta aseguruen ordainagirien kopiak aurkeztea.

j) Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak: Karatulako 1. puntuan ezarri bada kontratua egikaritzeko baldintza bereziak behar direla, esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileek III. eranskinean ezarritako egikaritze-baldintza bereziak betetzeko konpromisoa sinatu eta aurkeztu beharko dute.

k) Talde bereko enpresen zerrenda: APKLEOren 86.1 artikuluan ezarritako araua aplikatzeko, lizitatzaileek baldintza-agiri honen IV. eranskineko ereduaren araberako deklarazioa aurkeztu beharko dute, enpresa-talderen batekoak ez direla edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutako kasuren batean daudela azalduz, talde horretako enpresen eta lizitaziora aurkezten direnen zerrenda adierazita.

l) Datuen tratamendu eta lagapenerako erantzukizunpeko adierazpenaren eredua, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak betetzeari dagokionez, X. eranskinaren arabera.

m) Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak betetzeari dagokion konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpenaren eredua, XI. eranskinaren arabera.

a), b) eta d) letretan aipatutako egoerak (kontratua gauzatzez arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala zehaztea izan ezik) Euskadiko Lizitzatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Estatutako Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriaren bidez edo Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 96. eta 97. artikuluetan xedatutakoarekin bat sailkapenaren ziurtagiri komunitarioaren bitartez egiazta daitezke. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak modu elektronikoan igorri ahalko dira.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak Lekeitioko Udalari baimena ematen diola Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eskaera aipatutako epean behar bezala beteko ez balitz, lizitatzaileak eskaintza kendu duela ulertuko da eta, kasu horretan, hurrengo lizitatzaileari —eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraikiz— agiri berberak eskatuko zaizkio.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioak zuzen daitezkeen akatsak baditu, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko. Bada, hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta udalaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

28. ESLEIPENA, GAUZATZEA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak kontratua eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleituko dio, SPKLren 145. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Esleipena legez ezarritako epean egingo da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatuz egingo da eta, hala, agiri hori edozein erregistro publikotarako sarbidea izateko titulu nahikoa izango da. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, PRTRren kudeaketa-sistema eratzen duenak (irailaren 30eko BOE), ezarritakoaren arabera, kontratua formalizatzearekin batera honako hau bete beharko da:

• Tartean diren administrazioen artean datuak lagatzea onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz, eta datuen lagapenaren eta tratamenduaren aitorpena sinatzea, agiri honen VII.3 eranskinean jasota dagoena.
• Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoa hartzea, baldin eta printzipio horiek kudeaketaren xede den eremuan eragina izan badezakete, eta V.6 eranskinean jasotako konpromisoa sinatzea.

Aipatzen den epean esleipendunak honako jarduketa hauek gauzatu beharko ditu:

Administrazio honetan agertzea, kontratua administrazio-agirian legezko egiteko.

Azkenik, esleipenduna administrazio honetan agertuko da proiektuaren zuinketa egiaztatu eta dagokion akta sinatzeko. Une horretatik aurrera kontratua betetzeko epea zenbatzen hasiko da.

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoaren babesean, esleitzeko prozeduran atzera eginez gero edo kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia hartuz gero, lizitazioak lizitatzaileei ekarritako gastuen konpentsazioa Administrazio honek finkatuko du, haiek entzun eta justifikatu ondoren.

Kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla-eta ezin izango balitz kontratua legezko egin, administrazioak kontratua suntsiaraztea erabaki lezake. Erabaki hori hartu aurretik, ordea, entzunaldia emango zaio interesdunari, kalteen indemnizazioarekin.

Esleipendun ez direnen eskaintzak ofizioz itzuli ahalko dira, edo urtebeteko epean garbitu, eskaintza ekonomikoaren gutun-azalak izan ezik, kasu guztietan gorde beharko baitira.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DAUKAN JURISDIKZIOA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honen xede den kontratua administrazio-izaerakoa da, eta ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen araberakoa izan beharko da:

Administrazio Klausula Berezien Agiriak, karatulek, eranskinek eta lizitatzen diren obren proiektuaren agiri guztiek kontratu-izaera izango dute. Kontratuak agiri honen edukira egokituko dira, eta agiriaren klausulak kontratuen osagaitzat hartuko dira.

Aldeek beren-beregi bete beharko dute kontratu-dokumentuetan ezarrita dagoena, bai eta obren zuzendaritzak kontratua behar bezala egikaritu eta interpretatze aldera botere esleitzailearen ordezkari gisa kontratistari idatziz ematen dizkion jarraibideak ere.

Debekatuta dago kontratuaren baldintzak lizitatzaileekin negoziatzea.

Agiri hau eta kontratuko gainerako dokumentuetako edozein bat ez baletoz, AKBA nagusituko da —izaera teknikoko gai eta zehaztapenen kasuan izan ezik—, bertan baitaude kontratuko alderdiek onartutako eskubideak eta betebeharrak.

Era berean, Administrazioak onartutako proiektuaren dokumentuak bat ez baletoz, proiektuaren parte den Baldintza Tekniko Berezien Agirian ezartzen den lehentasun-ordenari jarraituko zaio. Agiri horretan ezarrita ez badago, obren zuzendaritzak adierazitako lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio, zeinak zehaztuko baitu, kontratua aldatzeari eta eteteari buruz ezarritako mugekin, kasu bakoitzean nagusitu beharreko dokumentua.

Kontratu hau Lekeitioko Udalaren iruzurraren aurkako planean xedatutako klausula guztiei lotuta dago. Plan hori 2022ko ekainaren 21eko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu zen.

Lekeitioko Udalaren iruzurraren aurkako plana.

https://www.lekeitio.com/eu-ES/Albisteak/Orriak/Europa---Next-Generation.aspx

Salaketetarako postontzi elektronikoa:

buzon-mrr@euskadi.eus

Nahiz eta ez ezagutu baldintza-agiri hau, kontratua, erantsitako dokumentuak edo administrazioak onetsitako jarraibide edo era guztietako arauak, horiek guztiak hitzartutakoa betetzeko aplikatu beharrekoak badira, kontratistak eta, egonez gero, azpikontratistek nahitaez bete beharko dituzte.

Kontratu-dokumentuetan xedatuta ez dauden gauzetarako, kontratuak honako arau hauek bete beharko ditu:

a) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).

b) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO), SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

c) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

d) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

e) Agindua, 2004ko abuztuaren 16koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketen izapidetze telematikoari buruzkoa.

f) 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duena, eta 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzen duena.

g) 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioarena, eta 1359/2011 Errege Dekretua, urriaren 7koa, administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen eta obra-kontratuen prezioak berrikusteko oinarrizko materialen eta formula-eredu orokorren zerrenda onesten duena.

h) Hala badagokio, 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Eraikuntzako obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan bete beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.

i) Hala badagokio, 209/2014 Errege Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena.

j) Abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuak onartutako Estatuko Obrak Kontratatzeko Administrazio Klausula Orokorren Agiria, Testu Bateginean eta aurreko erregelamenduetan (Administrazio Klausula Orokorren Agiria) ezarrita dagoenaren kontra egiten ez duen bitartean.

k) Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesten dituena datu pertsonalen tratamenduari eta datuen zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/EE Zuzentaraua bertan behera uzten duena.

l) Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

m) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko neurri urgenteak onartzen dituena.

n) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratu zuena.

o) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, erkidegoko eta tokiko sektore publikoko entitateek eman beharreko informazioaren formatua eta prozedura ezarri zuena, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko osagaien neurrien kontabilitate eta aurrekontua gauzatzeko eta helburu eta mugarriei jarraipena egiteko.

p) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

q) Europar Batasunaren, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak, esparru horretan aplikatzekoak badira.

Osagarri gisa, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak.

30. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarriko betebeharrak bete beharko ditu, honako hauei dagokienez: Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honen babesean onetsitako betebeharrak ez betetzearen ondorioz entitate kontratatzailea zenbatekoak ordaintzera kondenatzen bada, ordaindutakoa kontratistari jasanaraziko zaio. Hala, administrazio kontratatzaileak edozein ekintza

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

administratibo edo judizialerako eskubidea gordetzen du, baldin eta ordaindutako zenbatekoak erabat berreskuratzeko egokiak eta bidezkoak badira.

31. ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

Kontratu honen ondorioz sortutako gai gatazkatsuetarako administrazioarekiko auzi jurisdikzioari erreparatuko zaio; hala eta guztiz ere, aldeek erabaki dezakete gatazkak arbitrajearen bidez ebaztea, indarreko legerian xedatutakoarekin bat.

32. KANPO-KOMUNIKAZIORAKO HIZKUNTZA

Kanpo-komunikazioan erabili beharreko hizkuntzei dagokienez (iragarkiak, errotuluak, oharrak, seinaleak, etab.), gutxienez euskara erabiliko da.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

III - ERANSKINAK

I. ERANSKINA – PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

…… jn./and., ……. hiri/herrian (..... PK) helbidea duenak, …….. NAN zenbakidunak, …… telefonoa duenak, ……..... helbide elektronikoa duenak,

jarduteko gaitasun osoa eta gaitasun juridiko osoa izanda, bere izenean (edo .....(r)en ordezkari moduan,

..... hiri/herrian (..... PK) helbidea duena, ... telefonoa duena eta ..... NAN edo IFK (pertsona fisikoa edo juridikoa izatearen arabera) duena), ...k deitutako premiazko prozedura irekiaren bidez jakinaren gain izanda, ... kontratatzeko, hauxe

ADIERAZTEN DUT:

1) Honako prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dut: ....., honako ehunekoan: ....., eta kontzeptu guztiak prezioaren barne daudela ulertu behar da.

2) Administrazio Klausula Berezien Agiriak eta kontratu hau arautzeko gainerako dokumentazioak ezarritakoari dagokionez jakinaren gainean nago. Horiek guztiak beren-beregi onartu eta ontzat hartu ditut.

3) Indarrean dagoen arautegiko baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditu ordezkatzen dudan enpresak.

4) Jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko datuetarako sarbidea baimentzen dut.

BAI □ EZ □

BAIMENA EMATEN DIOT Lekeitioko Udalari prozedura honetan bitarteko elektronikoen bidez Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ziurtagiriak eskuratzeko.

..... (e)n, 202....ko .....ren ..... (e)(a)n

Sin.:
Enpresaren zigilua

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

II. ERANSKINA – DEUC

https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

III. ERANSKINA

Egikaritze baldintza bereziak betetzearen erantzukizunpeko adierazpena

…… jn./and., ……. hiri/herriko …… kalean helbidea duenak, …….. NAN zenbakidunak, bere izenean edo ..... (r)en ordezkari moduan, …… hiri/herriko ……..... kalean helbidea duena, ... telefonoa eta ..... IFZ duena, ... kontratazioan parte hartzeko, honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

Esleipenduna izanez gero, karatulan eta baldintza-agirian adierazitako egikaritze-baldintza bereziak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

Eta hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut ……(e)n. Data: 20.....(e)ko .....aren .....(a).

(LIZITATZAILEAREN SINADURA)

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IV. ERANSKINA

TALDE BEREKO ENPRESEN ZERRENDA

..... jn./and.
..... hiri/herrian,
..... probintzian,
..... kalean bizi denak,
..... nortasun-agiri nazionala duenak,
bere izenean edo ordezkatzen duen enpresaren izenean (1)

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen enpresa: (a edo b aukeratu)

a) Ez da enpresa-talde batekoa.

b) ..... izeneko enpresa-taldekoa da, eta honako enpresa hauek osatzen dute (adierazi taldeko enpresa guztiak):

Azken kasu horretan, honako hau adierazi beharko duzu:

Ez dira lizitazioan lehiatzen Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dauden taldeko beste enpresa batzuk.

Lizitazioan lehiatzen dira Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dauden taldeko beste enpresa batzuk. (adierazi beste enpresen izenak)

(Lekua, eguna eta sinadura)

Adierazi sozietatearen izena

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

V. ERANSKINA

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko datuen baliozkotasuna ziurtatzeko zinpeko aitorpena, edo Estatuko erregistroko datuena, hala dagokionean

…… jn./and., ……. hiri/herriko …… kalean helbidea duenak, …….. NAN zenbakidunak, bere izenean edo …… (r)en izenean, ... hiri/herriko ..... kalean helbidea duena eta ..... telefono eta …… IFZ duena,

EPAIMAHAIBURUAREN AURREAN NIRE ERANTZUKIZUNPEAN HAUXE AITORTZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzako (edo, hala badagokio, Estatuko) Kontratisten Erregistro Ofizialak emandako ziurtagirian jasotako datuen eta inguruabarren baliozkotasuna eta indarraldia, eta, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan xedatutako Administrazioarekin kontratuak egiteko debekuen eraginpean ez egoteari buruzkoak (*9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora*).

(EGUNA ETA SINADURA)

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

VI. ERANSKINA

BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

Jn./and.
Helbidea PK kalea
Bere izenean edo honako honen ordezkaritzan:
IFK
Jakinarazpenetarako helbidea
Posta elektronikoa

HONAKO HAU EGITEKO KONPROMISOA HARTZEN DUT:

B057-2024-00001 espediente zenbakidun **"Garraitz uhartea parke arkeologiko gisa balioztatzea**, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan" lehiaketaren esleipendun izanez gero, kontratua gauzatzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material jartzeko, baldintza teknikoen eta baldintza berezien agirietan jasotako zehaztapenen arabera.

Baliabideak berariaz zehaztuz gero:

Baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa:

Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:

Baliabide material eta giza baliabide horiek aurkeztutako proposamenaren parte izango dira, eta, beraz, esleipendun izanez gero, sinatzen dudan kontratuaren parte izango dira, eta lanak gauzatzen ari diren bitartean mantenduko dira. Baliabide horietan edozein aldaketa eginez gero, Udalari jakinaraziko diot, eta hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake.

Sinatu dut, lege-ondore egokiak izan ditzan,

Lekeition, 20....(e)ko .....aren ..... (e)(a)n

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

VII. ERANSKINA

AZPIKONTRATATZEA AURREIKUSTEN DIREN KONTRATU-ZATIAK ETA AZPIKONTRATISTEN ZERRENDA

..... jn./and.
..... hiri/herrian
..... probintzian
..... kalean bizi denak,
..... nortasun-agiri nazionala duenak,
bere izenean edo enpresaren izenean, agiri honen 9.2.2. klausulan ezarritakoari jarraikiz, honako hau adierazten du:

Azpikontratatuko diren kontratu-zatiak:	

Azpikontratisten zerrenda:		
Sozietatearen izena	IFZ	Helbide fiskala

* Kontratuak udal honek esleipendunari datu pertsonalak lagatzea eskatzen badu, lizitatzaileak honako hau adieraziko du eranskin honetan:

- Lanak azpikontratatuko dituzten.

- Kontratua gauzatzeko ardura emango zaien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

VIII. ERANSKINA

KONTRATUA GAUZATZEKO BALIABIDEEN ATXIKIPENA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA

..... jn./and.,
..... NAN zenbakidunak, ... hiri/herrian ..... probintzian ..... kalean bizi denak,

kontratua betetzeko atxikitzea agindu dituen bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duten agiriak eman ditu, aurkeztutako VI. eranskinaren arabera.

(giza baliabideen eta/edo baliabide materialen zerrenda bat egin eta dokumentazioa erantsi)

(Lekua, eguna eta sinadura)

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IX. ERANSKINA

KONTRATUAREN XEDE DEN JARDUERAN ARITZEN DIREN LANGILEEI APLIKATU BEHARREKO HITZARMEN KOLEKTIBOARI BURUZKO ADIERAZPENA ETA LAN-BALDINTZEI BURUZ ESKATZEN DEN INFORMAZIO GUZTIA EMATEKO KONPROMISOA

..... jn./and.,
..... hiri/herrian
..... probintzian
..... kalean bizi denak,
..... nortasun-agiri nazionala duenak,
bere izenean edo ordezkatzen duen enpresaren izenean, honako hau adierazten du, bere erantzukizunpean eta kontratua kudeatzen duen organoaren aurrean:

ADIERAZTEN DU:

Kontratuaren xede den jardueran aritzen diren langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa honako hau dela:

Konpromisoa hartzen duela langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatutako informazio guztia emateko.

(Lekua, eguna eta sinadura)

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

X. ERANSKINA

DATUEN TRATAMENDU ETA LAGAPENERAKO ADIERAZPENAREN EREDUA, BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (BEEP) JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ

..... jaun/andreak, (NAN zk.: .....) ..... erakundeko kontseilari delegatu/kudeatzaile/ gisa, ... IFZ eta ..... helbide fiskala duena, kontratista gisa parte hartzen du Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. Osagaian (turismo-sektorearen modernizazio- eta lehiakortasun-plana) zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketen garapenean, eta aitortzen du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12an emandako 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluko honako atal hauek:

1. 2. Idatz-zatiko d) letra: «Berreskurapen eta Erresilientzia Planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoretza eta kontrola egiteko, honako datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoan, eta datu-base bakarrean:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;
ii. Kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailea bada Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrita;
iii. Funtsen jasotzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan definitzen denaren arabera;
iv. Berreskurapen eta Erresilientzia Planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa zehaztu behar da».

2. 3. atala: «Artikulu honetako 2. paragrafoko d) idatz-zatian aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketaren onarpenari eta 15. artikuluko 2. paragrafoan eta 23. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako akordioen aplikazioarekin zerikusia duten funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol-prozedurei buruzko auditoretza egiteko.
Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikuluarekin bat etorrita, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan jasotako finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio integratuaren esparruan, eta, zehazki, bereizita, kudeaketari eta etekinari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoaren arabera, adierazi du datuak laga eta tratatuko dituela aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuekin.

....., 202...(e)ko .....aren ..... (a)

Sin.: ……
Kargua: ……

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

XI. ERANSKINA

BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (BEEP) JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKION KONPROMISOAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaun/andreak, (NAN zk.: .....) ..... erakundeko kontseilari delegatu/kudeatzaile/ gisa, ... IFZ eta ..... helbide fiskala duena, kontratista gisa parte hartzen du Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. Osagaian (turismo-sektorearen modernizazio- eta lehiakortasun-plana) zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketen garapenean, eta adierazten du ordezkatzen duen pertsonak/erakundeak arau juridiko, etiko eta moralak betetzeari dagokionez estandar zorrotzenekin duen konpromisoa, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu eta detektatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz, eta, hala badagokio, ikusitako ez-betetzeak dagokien agintariei jakinaraziz. Horrez gain, BEEParen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta plan horren esparruan egindako jarduerak gauzatzean ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko («DNSH», ingelesez «do no significant harm»). Gainera, adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik, eta, hala badagokio, ez dagoela jasota Estatuko laguntzen erregimenarekin bateraezinak izateko arriskurik.

....., 202...(e)ko .....aren ..... (a)

Sin.: ……
Kargua: ……

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

XII. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOKOAK EZ DIREN LANGILEEN INTERES GATAZKARIK EZA AITORTZEKO EREDUA (IGEA)

Espedientea:
Kontratua:

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen duenak, erreferentziazko espedientearen onuradun, esleipendun edo parte hartzaile gisa, honako hau adierazten du:

Lehenengoa. Honako honen jakitun dago:

1. Interes gatazka sor dezake BEMeko funtsekin finantzatutako jardunak egiten dituzten **onuradun pribatu, bazkide, kontratista edo azpikontratistek**, baldin eta beren interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza interesen aurka, interes gatazka baten esparruan.

2. Interes gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, honako hauek bereiz daitezke:

a. **Itxurazko interes gatazka:** Onuradun, bazkide, kontratista edo azpikontratista baten interes pribatuek beren eginkizunen edo betebeharren egikaritza objektiboa arriskuan jar dezaketenean sortzen da baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.

b. **Balizko interes gatazka:** Onuradun, bazkide, kontratista edo azpikontratista batek interes pribatuak dituenean gertatzen da, eta interes horiek interes gatazka sor dezaketenean, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.

c. **Benetako Interes gatazka:** Gatazka sortzen da funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta haien interes pribatuen artean, zeinek modu bidegabean eragin baitezakete betebehar horiek betetzean.

Bigarrena. Ez dago lehenengo apartatuan azaldutako egoera batean ere.

Hirugarrena. Hitzematen du Lekeitioko Udalari lehenbailehen jakinaraziko diola lehenengo apartatuan deskribatuta dagoen edozein interes gatazka.

Laugarrena. Jakin badakit interes gatazkarik ezaren aitorpen bat gezurrezkoa dela frogatuz gero, horrek bidegabeko kobrantza itzultzeko espediente bat hastea ekar dezakeela eta aplikatzekoa den araudian ezarritako administrazio eta/edo epailetza ondorioak ekarriko dituela.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

(Data eta sinadura, izen-abizenak eta NANa)

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

XIII. ERANSKINA

INGURUMENARI KALTERIK EZ ERAGITEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (DNSH).

..... jaun/andreak, (NAN zk.: .....) ..... erakundeko kontseilari delegatu/kudeatzaile/ gisa, ... IFZ eta ..... helbide fiskala duena, BEEPetik datozen baliabideekin kontratista gisa parte hartzen du 14. osagaian zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketen garapenean, eta honako hau adierazten du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaintzak honako baldintza hauek betetzen ditu:

1. Ingurumenari dagokionez jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») baten bidez, inbertsio jasangarriak ahalbidetzeko esparru baten ezarpenari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, proiektuan garatutako jarduerek ez diote kalte esanguratsurik eragiten ingurumeneko honako helburu hauei:

a) Klima-aldaketa arintzea.

b) Klima-aldaketara moldatzea.

c) Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.

d) Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.

e) Atmosferaren, uraren edo lurzoruaren kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.

f) Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.

2. Jarduerak, hala badagokio, osagaiaren neurketarako eta azpiproiekturako finkatutako ezaugarri eta baldintzetara egokitzen dira, eta horiek Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean islatzen dira.

3. Proiektuan garatzen diren jarduerek aplikatzekoa den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.

4. Garatutako jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioari buruzko gida teknikoarekin bat etorrita, hauek direla bide: Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko (2021/C58/01) Erregelamendua, Espainiako Berreskurapen eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakiaren proposamena eta dagokion eranskina.

5. Egindako jarduerek ez daukate zuzeneko ondoriorik ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primariorik haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Bigarrena. Badakit eta onartzen dut adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez badut, itzuli egin beharko direla jasotako kopuruak eta dagozkien berandutza-interesak.

....., 202...(e)ko .....aren ....(a) Sin.: ……

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

XIV. ERANSKINA

EGIAZKO TITULARTASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUN ADIERAZPENA

Enpresa lizitatzailearen izena:

Kontratuaren izena:

_____ jauna/andrea (NAN: _____)

_____ entitatearen (IFZ: _____; zerga egoitza: _____) titularra/ordezkaria da. Entitateak BEEPen baliabideak jaso ditu. Hori dela-eta, honako hau

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA. – Badaki zer xedatzen den irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 8. artikuluan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikuluan ezartzen dena betetzeko: **funtsen azken jasotzailea nor den zehaztu behar dela (funtsen jasotzailearen izen-abizenak, egiazko titularren jaiotegunak**), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntua kontuan hartuta egiazko titularrak nortzuk diren argitzeko.

BIGARRENA. – Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuan adierazten denaren arabera, funtsen egiazko titularrak honako hauek dira (egiazko titulartzat hartzen dira azken buruan bezeroaren jabetza edo kontrola daukaten pertsona fisikoak edo transakzio edo jarduera baten onura jasotzen duten pertsona fisikoak[1]):

[1] Pertsona juridikoen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluaren 6. puntuan adierazten denaren arabera, honako hauek dira gutxienez:

(i) <<Pertsona juridiko baten akzioen, boto eskubideen edo jabetza eskubideen partaidetza nahikoa (eramaile akzioen zorroak barne) zuzenean zein zeharka edukita edo beste modu batean kontrolatuta azken buruan haren jabetza edo kontrola daukaten pertsona fisikoak. Salbuespena: araututako merkatu

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

batean kotizatzen duten sozietateak, horrez gainera Batasunaren Zuzenbidearekin edo jabetzari buruzko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideekin bat datozen informazio-baldintzak bete behar dituztenak.

Pertsona fisiko batek bezeroaren kapital sozialaren % 25etik gorako partaidetza eta akzioen edo jabetza eskubideen % 25 baino gehiago edukitzea zuzeneko jabetzaren zantzua izango da. Pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean dagoen sozietate batek edo pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean dauden sozietate batzuek bezeroaren kapital sozialaren % 25etik gorako partaidetza eta akzioen edo jabetza eskubideen % 25 baino gehiago edukitzea zeharkako jabetzaren zantzua izango da. Aurrekoa aplikatu arren, Europar Batasuneko estatuek erabaki dezakete ehuneko txikiagoa izatea jabetzaren edo kontrolaren zantzua. Pertsona juridikoa «beste modu batean kontrolatuta» dagoenez ebazteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/UE Zuzentarauaren 22. artikuluaren 1 - 5 bitarteko apartatuetan ezartzen diren irizpideak aplika daitezke, besteak beste>>. Baldin eta, aukera guztiak agortutakoan, eta susmatzeko arrazoirik egon ezean, ez bada inor identifikatzen i) tartekian ezartzen denaren arabera, edo zalantzan jartzen bada identifikatutako pertsonak benetako titularrak direnik, entitateko goi mailako zuzendaritzan ari diren pertsonek egiazko titularrak 1) tartekian eta tarteki honetan ezartzen denaren arabera identifikatzeko ezarritako neurrien erregistroak eduki behar dituzte.

EGIAZKO TITULARTASUNA				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/IFZ/ PASAPORTEA	Nazionalitatea edo egoitza soziala	Jaioteguna	Partaidetza (%)

HIRUGARRENA. – Badaki ezen, eskatuz gero, Arabako Foru Aldundiaren erakunde betearazleari eman beharko diola egiazko titularrak nortzuk diren egiaztatzen duen notario aktaren kopia, azken adjudikazioduna edo jasotzailea merkataritza sozietatea bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezartzen denarekin bat etorriz.

_____(e)n, 20__(e)ko _____aren ____(e)(a)n

Kargua: _____

Sinadura:

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

XV. ERANSKINA

IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKARI ATXIKITZEARI ETA POLITIKA HORI EZAGUTZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jn./and., bere izenean edo _____ (r)en ordezkaritzan,

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Iruzurraren aurkako neurrien plan propioa dutela, eta bat datorrela Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoarekin, bai eta esku-hartze orokorren eta zerbitzu juridikoen Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoen arloko gomendioekin eta erakunde publikoetan baliokideak diren kontrol-organoekin eta jarraibideekin, bai eta EBk iruzurraren aurka ezartzen duenarekin ere.

Halakorik ezean, Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutako Eusko Jaurlaritzaren *Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien plana*ri atxikiko dira.

BIGARRENA.- Iruzurraren aurkako politikaren edukia ezagutzen dutela, bai eta horretarako ezartzen diren betebeharrak ere, eta ahalik eta publikotasunik handiena emateko konpromisoa hartzen dutela.

HIRUGARRENA.- _____ jaun/andrea izendatzen duela Eusko Jaurlaritzarekin iruzurraren aurkako kontuei buruz hitz egiteko.

_____(e)n, 202__(e)ko _____aren __(e)(a)n

Sinatua:

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

XVI. ERANSKINA

BERARIAZKO BAIMENA SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO AGINTARITZEI

Enpresa lizitatzailearen izena:

Kontratuaren izena:

Ni, (izen-abizenak) …….. jauna/andrea, (entitatearen izen ofiziala) ……(r)en (organoa) ……..... naiz, eta entitate horren izenean eta ordezkaritzan jarduteko gaitasun nahikoa daukat. Honen bidez,

Behar diren eskubideak eta sarbideak ematen ditut Europako Batzordeak, OLAFek, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintari nazional eskudunek beren eskumenak baliatu ahal izateko Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren laguntzen gainean.

Halaber, berariaz ematen dut Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan arautzen den baimena.

(Lekua) ……(e)n,

(data)……..(e)(a)n

Kargua:

Sinadura:

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

XVII. ERANSKINA

FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DUELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____),
_____ erakundearen titular/ordezkari den aldetik (IFZ: _____; zerga-egoitza: _____), SEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik (deialdiaren izena) _____ izeneko jardueraren esparruan, bere erantzukizunpean aitortzen du:

☐ Ez duela jaso Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duena) ez den Europar Batasuneko beste edozein funtsaren laguntzarik, eta ez dela aurkeztuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik eratorritako aurrekontua duen etorkizuneko beste edozein funtsaren finantzaketarako.

Jarraitu soilik aurreko baieztapenean laukitxoa markatu ez bada; hau da, proiektuak beste funts baten finantzaketa jaso badu edo etorkizunean jasotzea aurreikusten bada helburu bererako:

☐ Laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugetara egokitzeko konpromisoa hartzen duela.

☐ Gastuen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen duela, finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

☐ Proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzen duten mekanismoak eta kudeaketa-ahalmena daudela.

☐ Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.4 artikuluaren arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeko justifikazio-agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

☐ Honako datu hauek identifikatzen direla:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK: Xede berberarekin beste administrazio edo erakunde publiko bati emandako edo eskatutako laguntzak eta dirulaguntzak			
Administrazioa edo erakunde publikoa	**Xedea**	**Egoera**	**Guztira (€)**
Eskatutakoa, guztira: _____€		*Emandakoa, guztira:* _____€	

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

_____ (e)n, 20____(e)ko _____ren _____(e)an

Sin.:

Kargua:

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO